

Bilbo

herri**pr**ograma 2011

zure ahotza, gure hitza!
TÚ TIENES LA PALABRA



1. zirriborrea

www.herriprograma2011.net/bilbo

Aurkibidea

Sarrera.....	3
Udal eredia.....	5
Parte-hartzea.....	6
Eskubide demokratikoak.....	7
Naziotasuna.....	8
Internazionalismoa.....	8
Laikotasuna.....	9
Animaliekiko tratu etikoa.....	9
Euskara.....	9
Hiri eredia.....	11
Etxebizitza.....	11
Hiri eredu iraunkorra - Hirigintza.....	13
Mugikortasuna.....	18
Jendarte eredia.....	21
Hezkuntza.....	21
Politika feminista.....	22
Migrazioak eta aniztasuna.....	26
Sozioekonomia.....	27
Politika fiskala eta kontratazioa.....	29
Politika soziala.....	29
Kultura.....	30
Kirola.....	32
Aisialdia.....	34
Gazte Programa.....	35

Sarrera

BILBO ERALDATZERA GOAZ!!

Euskal Herrian aro politiko berri bat zabaltzen ari da, eta bide honetan, indar desberdinen metaketa bilatu, eremuak irabazi eta herri honetan indar harremanak aldatzea dugu helburu. Horrela, hain beharrezkoa dugun aldaketa politiko eta sozialaren bidean, gune eta eremu instituzional desberdinetatik eragin eta urratsak eman ahalko ditugu, baita Bilboko udaletxetik ere.

Bilbok aldaketa nabariak bizi izan ditu azken urteotan. Ezin da ukatu, baina zeren truke?, eta zeinen onurarako? Bilboko egoerari buruz egindako diagnostikoak agerian utzi du Bilbok behar duen eraldaketa auzoen eta bertan bizi garenon kaltetan eta parte hartzerik gabe burutzen ari direla.

Zortzi urteko bazterketa politikoaz baliatu dira EAJ eta IU **herritarren beharrak asetzen ez dituen itxurazko hiri eredia** ezartzeko, PP eta PSOEn isileko babesarekin eta inolako oposizioarik gabe.

Bi abiaduratako Bilbo ari dira eraikitzen. Gero eta nabariagoa da erdigune eta auzoen arteko desoreka. Egun 26.000 pertsona baino gehiagok osatzen dute langabetuen boltsa Bilbon. Bitartean, laguntza sozialak gero eta murriztagoak dira. Berdeguneen ordez, porlana eta espekulazioa lehenesten da. Auzoetan oinarrizko zerbitzuen eskaintza gainbeheran dago; eta abar luze bat.

Bilboko zentroaren eta periferia osatzen duten auzoen arteko aldea gero eta nabarmenagoa da, azken hauen kaltetan, bai azpiegituren eskaintzan, hauen kalitatean, etabar. Horren aurrean, geure eredia auzoetan eta auzoek dituzten beharretatik abiatuko dela azpimarratu nahi dugu.

EAJk eta IUK autoritarismoan oinarritutako eta herritarren iritzia kontuan hartzen ez duen Udala zuzentzen dute. Euskal Herriarekiko zein euskararekiko mespretxua izan Azkunaren politikaren oinarri sendo bat. Jarrera autoritario horren beste adibide bat, auzo elkarte zein eragileekiko Azkunak duen mespretxua da, Espazio Publikoaren gaineko Ordenantzaren bitartez ederto irudikatu duelarik non nahi dituen kokatu Azkunak eragileak, kale espresioak eta hiritarren oinarrizko eskubidea den espazio publikoaren erabilpena.

Bilbo Euskal Herrira baino, Madrilera begira gobernatzen dute. Adibideak soberan ditugu: Espainiako bandera udaletxean jarri izana, Espainiako Itzulia Bilbora ekartzea edota Espainiako loteria Bilbon zozketatze. Ezin dugu ulertu Azkunak eta EAJk, Espainiako edozein hiribururekiko duten bat egiteko obsesioa. Askotan zalantzak ditugu Azkuna Bilboko, Burgoseko edo Santanderreko alkatea den.

Balantzea

Ez gara besoak gurutzatuta gelditu urte hauetan:

2003ko maiatzean Udaletik indarrez kanporatu gintuzten arren, ez gara desagertuta egon denbora tarte honetan. Kanean eta auzoetan tinko ibili gara herritarren interesak defendatzen eta EAJk eta IUK ezarri nahi diguten goi mailako hiri eredu horri aurre egiten.

- Herritarren parte-hartzea bultzatzea izan dugu helburu eta proposamenak bata bestearen atzean egin izan ditugu: aurrekontu parte-har-tzaileak lortzeko, Barruti Kontseiluak zein gainontzeko kontseiluak aniztasunaren isla izan daitezen eta gauzak egin ahal izateko eskumenak Barrutietara deszentralizatu ditzaten.
- Auzoak baztertuta ez gelditzeko eskakizun ugari egin ditugu eta irmo salatu ditugu hirigintza proiektu erraldoiak, espekulatzailen eta gutxi batzuen mesederako planifikatu direnak (Deustuibarra, AHTren Bilboko sarbidea eta abar).

- Euskararen, gure nortasunaren eta kulturaren aldeko hautu garbia egin dugu. Gainera, Azkunak Espainako bandera jarri zuenean herritarren desadostasuna eta haserrea kalean agertzeko gai izan ginen. Bestalde, behin eta berriro babes eta laguntza eskaini diegu auzoetako jai batzordeei zein Bilboko Konpartsei.
- Eragile sozial, sindikal eta auzo elkarteekin batera, berriz, kalea guztiona dela defendatu dugu, espazio publikoa kontrolatzeko ahalegin zoroen gainetik.

Horregatik guztiagatik, ozen esan dezakegu ez dagoela legerik hiri honen borondatea isilaraziko duenik, eta beste ezerk baino gehiago herritarren aldeko lanak batzen eta mugitzen gaituela.

Aurrera begira

Hiria bizitzeko, kalitatez bizitzeko lekua izan behar da. Beraz, bertan gure bizitzaren arlo guztiak garatu ahal izan beharko genituzke: lana, kirola, aisialdia, harremanak, kultura, heziketa, ... eta hori guztia benetan modu asegarrian, parekidean, duinean eta justuan. Gure ustez, hori bete ahal izateko ezinbestekoa da guztion parte hartzea ahalbideratzea, hau da, egungo egoera iraultzea eta egiptoko piramide itzela den Bilboko Udalari buelta emanez, udala tresna bat izatea herritarrei beren bizitzak kudeatzen laguntzeko.

Gauzak beste era batera egin behar direla planteatzen dugu. Bilbon aldaketarako indar nahiko dagoela adieraztea dugu helburu. EAJ, PP, PSOE eta IU alderdien diskurtso berdinari aurre egiteko **Alternatiba anitza, zabala, zintzoa eta eraginkorra** eratzeko indar nahiko dago Bilbon. Hori da gure erronka.

Horretarako, programa alternatibo bat osatu eta lantzeko konpromisoa hartu dugu. Hurrengo lau urteetan Udaletxean jorratu, landu eta defendatuko dugun programa abertzale eta ezkertiarra. Baina programa hori gauzatzekoan, bilbotarron eta eragile sozialen parte hartzea bultzatzea eta ahalbideratzea ezinbestekoa deritzogu.

Bilbok bizi duen defizit demokratikoari konponbidea jarri nahi diogu, eta horretarako herritarren parte hartzea oinarrizko printzipio gisa hartuko dugu. Izan ere, herritarrek urte guzti hauetan eraman den udal kudeaketan parte hartzeko aukera izan balute, ez ginateke egoera honetan egongo. Herritarren udala da guk aldarrikatzen duguna. Herritar guztion artean eraiki behar dugu gure etorkizuna.

Aukera handia dugu esku artean. Hortaz, ez dezagun denbora gehiago gal eta lan egin dezagun Bilboko Udaletik aldaketa politiko eta soziala egikaritzen hasteko. Lan egin dezagun Bilbotik ere prozesu demokratikoari bultzada emateko. Lortuko dugu!

Udal eredua

Bilbo ereduzkoa izateko, ezinbestez Udalak, instituziorik hurbilena den heinean, ereduzkoa behar du izan. Hona hemen Udalaren eguneroko lanean ezker abertzaleak bultzatuko dituen printzipioak:

- **DESENTRALIZATUA:** ez bakarrik administratiboki, politikoki ere. Gaur egungo barrutiak oso era artifizialean osatuta daude, zerikusia ez duten auzoak batzen dituzte. **Auzo Kontseiluak lehenetsiko duen konfigurazio instituzio berri bat** beharrezkotzat jotzen dugu eta **Barrutiak zein Hiri Kontseilua eta kontseilu sektorialak eskumenez bete behar dira.**
- **HERRITARRONTZAT ZABALIK:** Udal jardueraren oinarriak **herritarren partehartzea** izan behar du.
- **GARDENTASUNA:** Herritarrek **Udal jarduera kontrolatzeko tresnak** jarriko dira martxan.
- **KUDEAKETA ZUZENA:** **Udal zerbitzuak** (garbiketa, diru-bilketa, zabor-bilketa, 010 informazio zerbitzua, etab ...) **era zuzenean eskaini behar dira**, eta ez orain arte bezala, azpikontratazioen bitartez. Bi helburu argiekin, diru publikoa ez erabiltzea enpresa pribatuek etekinak ateratzeko eta arlo hauetan aritzen diren langileen baldintzak hobetzea.
- **DEMOKRATIKOA:** **Udal gobernuan indar politiko guztiak** ordezkaturata egon behar dira eta Udalak erakunde ezberdinetan dituen ordezkariak indar politiko guztien artean banaturata egotea ere.
- **PAREKIDEA:** Udal Gobernuaren osaketan, Barrutietan, Erakunde ezberdinetako Udal ordezkarien artean, emakume eta gizonen arteko parekidetasuna bermatuko da.
- **BALIABIDE EKONOMIKO NAHIKOAK IZANGO DITUEN UDALA:** maila instituzionalen artean dagoen baliabideen banaketa irauli eta **udalei baliabide gehiago eman behar zaie, eskuduntzak eta kudeaketa herritarrengana hurbiltzeko.**
- **DIRU PUBLIKOAREKIN IRUZURRIK EZ:** **Alkate eta zinegotzien soldatak gutxituko dira**, goi mailako karguak mugatuko dira eta dietak eta horrelakoak kenduko dira, ospe eta beraz neurrigabeko kostea suposatzen duten ekitaldiak ez dira bultzatuko, etab.
- **ZERGA ETA TASA POLITIKA SOLIDARIOA ETA BIRBANATZAILEA** bultzatuko dugu: **Gehien duenak gehiago ordaindu beharko du.** Pobreziaren mugara heltzen ez diren pertsonak dohainik eskuratuko dituzte Udal zerbitzuak.
- **AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK ETA GENERO IKUSPEGIA** barneraturata dutenak bultzatuko dira.
- Hirian sortzen diren **GATAZKAK KONPONTZEKO BIDEA** zigorra ez izatea, baizik eta **inplikaturiko sektore ezberdinen arteko elkarrizketa eta akordioak** lortzeko tresnak jarriko dira abian. Esate baterako espazio publikoaren okupazioa ...

Gure lehenengo proposamenak:

1. Alkatearen zein zinegotzien urteko soldata 50.000 eurotik gorakoa ez da izango.
2. Udaleko goi karguen kopurua 50 pertsonara mugatuko dugu.
3. Udalbatzan edota Udal erakundeetan parte hartzeagatik dietak bertan behera utziko ditugu.

Parte-hartzea

Demokrazia lau urtean behin bozkatzea baino gehiago dela sinesten dugunok herritar eta herrigintzan diharduten **eragileen parte hartzea ahalbideratzen duen filosofia** eta praktika bultzatzea eta hedatzea dugu helburu. Berau eraldaketa sozialerako ezinbesteko oinarria baita besteak beste.

Bozkek lortu ondoren herritarrei eginiko promesak ahaztu eta funtzionamendu ilun, ezkutu eta herritarrekiko urruna den eredu bultzatzen du egun klase politikoaren gehiengo nabarmen batek. Era berean, eredu honek pribatizazio politikarekin batera ustelkeriari bide ematen dio, oraindik orain herritarrek politikarekiko eta klase politikoarekiko duten iritzi kritiko edo negatiboa areagotuz.

Egoera honek gehiago urrundu ditu herritarrak politikatik eta instituzioetatik. Zaila suertatzen da egungo errealitateari buelta eman, parte hartzerako tresnak eskaini eta herritarren edo herrigintzan diharduten eragile edo elkartearen erantzun positiboa jasotzea. Eskainitako parte hartzerako tresnek nekez jasotzen dute edo jasoko dute berehalako erantzuna, kultura politiko oso bat eraldatzeaz ari baikara.

Horregatik eta proposamen zehatzetan sartu aurretik zenbait irizpide orokor aipatu nahiko genituzke:

- Parte hartzerako tresnen definizioa plan edo dinamika orokor baten baitan kokatu behar da. Proposamen zehatzek **egitasmo orokor eta integral bati erantzun behar diote**.
- Parte hartzerako egitasmo horrek **izaera transbersala** izan behar du, alegia udal funtzionamenduaren atal guztiak kontutan hartzea.
- Parte hartzerako eskainiko diren tresnak ugariak eta **izaera iraunkorrekoak** behar dute izan, proiektu zehatz baten eztabaidatik harantzago.
- Parte hartzerako tresnen eskaintzarekin batera **demokrazia parte hartzailearen kultura politikoa hedatzeko** jendartean beharrezkoa den jarrera ireki eta kritikoa bultzatu behar da eta horri begirako egitasmoak ere bultzatu.
- Egungo gizarte eredu patriarkalak orobat emakumearen eguneroko jarduera arlo pribatura mugatzen du, gizonen parte hartze eta jarduera publikoa handiagoa delarik. Herritarren parte hartzea helburu duen edozein egitasmo beraz diagnostikoan errealitate gordin hau barneratzea ezinbestekoa da, egoera hau irauliko dituzten erabakiak hartu ahal izateko. Alegia, **emakumeen parte hartzea ahalbideratuko duten neurriak hausnartu eta erabakitzeko**.

Bilboko Udalaren deszentralizazioa eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko **ondorengo hau proposatzen dugu**:

4. **Barruti Kontseiluak** demokratizatzea eta berregituratzea
 - Barrutiak auzoen errealitateari egokitu. Hau da, **barrutien egungo osaketa berraztertu**, txikiagoak egin eta harreman naturala duten auzoak batuko dituen barruti gehiago sortu.
 - Deszentralizazio administratiboaz gain, **deszentralizazio politikoa**. Hau da Barrutietako gaietaz **Barruti-Kontseiluek erabaki** behar dute, eta aldi berean, Barrutietako gaietaz Udalak erabaki ahal izateko, Barruti-Kontseiluek aurreko txostena egin beharko dute.
 - **Parekidea** helburu duen osaketa bultzatuko dugu
 - Barrutietako lehendakariak eta idazkariak **elebidunak** izango dira.
 - Barruti-Kontseiluetan dauden **elkarte ezberdinen ordezkariak bozka-
eskubidea izango dute**, alderdi politikoek bezala.

- **Deszentralizaziorako Zerbitzua eratzea** proposatzen dugu eta bere menpe, Deszentralizazio-Batzordea, non Barruti-Kontseiluen Lehendakariak eta barruti bakoitzeko auzo edota jendarte-elkarteetako ordezkari bana bilduko diren, guztiek bozka-eskubidea izanik.
 - Barruti-Kontseiluek **aurrekontu propioa** izan behar dute. Aurrekontua ez da Barruti guztietarako berdina izango.
 - Auzo-Kontseiluak eratzea bultzatuko dugu, parte-hartzeko era bizkorragoa baita, barrutira jo beharrik izan gabe.
5. **Hiri Kontseilua eta kontseilu sektorialak** demokratizatzea eta eraginkorrak izatea bultzatuko dugu:
 - Bilbok duen **aniztasuna eta elkarteen oparotasunaren isla** izan behar dute.
 - Osaketa **parekidea** izango da eta kontseiluetako lehendakariak eta idazkariak **elebidunak** izango dira.
 - **Erabakigarriak** izango dira, eta ez, orain bezala, kontsultibo hutsak.
 - Onartuta dauden Kontseilu Sektorialak aktibatuko ditugu eta berriak eratuko ditugu (Euskara, Kultura, etab.).
 6. Bilboko elkarteen mahaia osatzea eragile antolatuen partehartze zuzen eta formala ahalbideratzeko.
 7. **Elkarteek mozioak aurkezteko** eta Udalbatzan eta Udal batzordeetan hitz egiteko eta mozioak defendatzeko aukera izango dute.
 8. Udalaren **egoitzetan biltzeko** eta **ekipamenduak erabiltzeko** herritarrek duten eskubidea bermatuko da.
 9. **Erreferendumak** antolatuko dira, herritarrentzat garrantzitsuak diren gaien inguruan erabakitzeko. Udalak erreferenduma konbokatuko du inplikaturiko pertsonen %5ak eskatuz gero. Kopuru hori finkatuko da auzo bateko, Barruti bateko edo Bilbo osoko gaia denaren arabera.
 10. Parte hartze antolatua eta herrigintza bultzatzea helburu izango duten **subentzioak** bultzatuko ditugu.
 11. Udalaren **Aurrekontuak** eta proiektu edo **egitasmo nagusiak** era **partehartzailean** erabakiko dira.
 12. **Teknologia berriek** eskaintzen duten aukerak baliatuz prozesu parte hartzaileetan herritarren iritzia jasotzeko sarearen erabilpena bultzatuko dugu.
 13. Udalaren eta herritarren edota elkarteen arteko talkak gainditzeko **bitartekariaren figura sortzea** proposatzen dugu.

Eskubide demokratikoak

Udala liderra izan da biltzeko eta antolatzeko eskubideen murrizketak aurrera eramateko orduan. Adibideak ezin ugariagoak dira: lokal autogestionatuen indar bidezko itxierak, kaleko bideo-zaintzaren gorakada izugarria, auzo-etxeetan biltzeko arazoak, jaiak edota ekimen kulturalak kalean edota udal zentroetan antolatzeko debekuak, ordutegien murrizketak, fidantzen galerak...

Hori gutxi balitz, **oinarrizko eskubideak (ideia politikoen zabalkundea hain zuzen) urratzen dituen eta kalean gertatzen den oro era murriztaile batean arautzen duen Espazio Publikoari buruzko ordenantza** onartu berri du Udal gobernuak.

Bestetik, delitugintza aitzakiatzat hartuta, azken urteotan Bilbo kontrolaren hiri bihurtu da. Horren ondorioz, oinarrizko zenbait eskubide ukatzen dizkigute bilbotarroi. **Kaleko bideozaintza** areagotu egin da azken urte hauetan.

Franco gerra kriminala hil eta 36 urtera, **frankismoa sostengatu zuten balio eta pertsonak goresten dituzten ikurrak eta kale-izenak** daude oraindik Bilbon. Frankisten bortizkeria pairatu zuten milaka bilbotarrei zein zentzu demokratikoari egindako eraso larria da hemen eta une honetan egiten ari dena.

Honen aurrean ondorengo proposamenak egiten ditugu:

14. **Espazio Publikoari buruzko ordenantza bertan behera gelditzea** eta kalearen erabilerari buruzko debate lasaia eta parte-hartzailea martxan jartzea.
15. **Kaleko bideozaintzari buruzko Bilboko mapa zehaztea.**
16. **Udalak San Frantzisko eta Bilbo Zaharra auzoetan, auzo etxeetan zein Bilbobusetan jarritako bideo-zaintza eraistea.**
17. **Oroimen historikoaren** berreskuratzeko Udal programa abian jartzea eta Euskal Herriko egia eta memoriaren batzordearen eraketa sustatzea.
18. **Frankismoa sostengatu zuten balio eta pertsonak goresten dituzten ikurrak eta kale izenak kentzea.**
19. Ideologia politika edo afiliazio sindikala zela-eta Frankismo garaitik depuratuak eta kaleratuak izan diren Udal langile zein funtzionarioen errehabilitazioa bultzatzea.

Naziotasuna

Bilbo Euskal Herrian dago kokatua, Udal gobernuaren lana aztertuta kontrakoa eman arren. Bilbo Euskal Herriko udalerririk populatuena da eta, horregatik, aurreikusten den aldaketa politikoaren eta eraikuntza nazionalaren bidean aitzindaria izan behar du Udalak.

Unea da Udalak azken zortzi urte hauetan espainiartasuna bultzatzeko edota Bilbo **Espainiako edozein hirirekiko berdintzeko martxan jarritako politika okerrari amaiera emateko.**

20. Udal eraikin guztietatik **inposaturik dugun sinbologia eta ikur arrotzen desagertzea.**
21. **Ikurrina** Udaletxean eta Udaletxetik eratortzen diren eraikin guztietan **presente egotea.**
22. **Udalbiltza** errespetatzea eta nazio instituzioaren kide aktiboa izatea, Euskal Herria nazio berezko eta desberdindua dela aldarrikatuz Euskal Herria eskubideen jabe dela ukatzen duten Espainiako zein Frantziako estatuen aurrean, zein nazioartean; eta, bestetik, nazio eraikuntza bultzatuz .
23. Udalak edozein herritarrak Udaletxean **EHNA** era **ofizial** batean tramitatzeko aukera ematea; eta udaletxetik eratortzen diren zerbitzu eta gune publikoetan EHNA aurkezten duen edozein herritarrei inolako arazorik gabe onartzea eta errespetatzea.
24. FEM, Espainiako Udalen Federaziotik ateratzea.
25. Euskal Herriko selekzioen ofizialtasuna sustatzea eta kirol federazio nazionalen alde aritzea.

Internazionalismoa

Ezker Abertzaleak Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa aldarrikatzen ditu bere proiektu estrategiko gisa. Norabide horretan internazionalismoaren bere lan ildoan txertatu behar du, ez baitago mundu globalizatu honetan herrien eta pertsonen askatasuna aldarrikatzerik, munduan diren beste herri eta sozial prozesuetatik irakaspenak jaso eta beraiei gureak zabaltzen saiatu gabe. **Elkartasuna soila baino gehiago da internazionalismoa** eta horren alde joko dugu.

Euskal Fondoaren aldeko apustua egiten dugu. Nazio mailako egitua duen erakunde honen bidez, elkartasuna eta proiektuak zuzenean bideratzeko, garatzeko eta kontrolatzeko aukera ematen duelako.

Proposamenak:

26. Udalak ez ditu harremanak izango giza eskubideak zapaltzen dituzten edota autodeterminazio eskubidea ukatzen duten estatuekin zein euren ordezkariekin.
27. Internazionalismoa lantzeko diru partida zehatza finkatzea. Horretarako nazioarte mailan onetsia dagoen **aurrekontuaren %0,7ko** zifra erreferentzia gisa izango dugu

Laikotasuna

Laikotasunak administrazioaren oinarrizko eta ezinbesteko zutabe bat izan behar du. Azken urte hauetan biderkatu dira Udal gobernuak zuzenean parte hartutako ekimen erlijiosoak edota oso kutsu erlijiosoak duten ekimenak aurrera ateratzeko udal diru laguntzak.

28. Udal **governuko kideek ez dute parte hartuko ekitaldi erlijiosoetan udal ordezkari gisa.**
29. Ospakizun erlijiosoak **ez dira diruz lagunduko.**
30. Auzo etxeak eta udal ekipamenduak egokituko dira **Bilboko auzo guztietan hileta zibilak egin ahal izateko.**

Animaliekiko tratu etikoa

XXI. mendean onartezinak dira animaliekiko jarrera bortitzak. Are gutxiago, kulturaren aitzakiarekin, animalien sufrimenduan oinarritutako ekimenak. Udalak aitzindaria izan behar du animaliek tratu etikoa jasotzen dutela.

Proposamenak:

31. Udalerrian **debekatuko dira animaliekiko tratu etikoa bermatzen ez duten ekimenak.**
32. Udalak **ez ditu diruz lagunduko** animalien sufrimenduan oinarritzen diren jarduerak edota ekimenak (zezenketak), ez zuzenean ez era zeharka batean.
33. Udalak **ez du utziko udal azpiegiturarik** animalien kontrako bortizkerian oinarritutako ekimen edota jarduerak (zezenketak) egiteko.

Euskara

Bilbo da euskaldun kopururik handiena duen Euskal Herriko udalerria: 83.354 euskaldun, EUSTATen 2006ko Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikaren arabera, beste euskal hiriburuek baino gehiago. Kopuru horri ia euskaldunak diren pertsonen kopurua gehitu behar zaio. Beraz, Bilboko biztanleen %50, erdia, euskalduna edo ia euskalduna da. Halere, beste erdia erdaldun hutsa da.

Datuei begira, beraz, Bilbon, euskara gutxiengo baten hizkuntza da, nahiz eta hizkuntza hori erabiltzen dutenen multzorik handiena bertan egon. Baina, egoera honetara nola iritsi garen

kontuan hartzen badugu, euskara gutxiengo baten hizkuntza baino, hizkuntza gutxitua dela esan argitu behar da. Izan ere, euskararen aurka azken mende eta erdian izan den errepresioa eta presio kultural eta politikoa da gaurko egoeraren erruduna.

Herritarrek ez dituzte aukera berdinak aurkitzen gaztelania ikasi eta gaztelaniaz egiteko eta euren bizimodua gaztelaniaz garatzeko, eta euskara ikasi eta euskaraz egiteko eta euren bizimodua euskaraz garatzeko; askoz ere gutxiago. Bilbok, 150 urte baino gehiagoz pairatu izan dituen hizkuntz politiken ondorioa da hori, euskara baztertzeko eta desagerrarazteko helburua izan duten politikak.

Egungo legediak zein Bilboko Udalaren azken hogeita hamar urteotako ekintzek euskara bigarren mailako zokoan mantendu dute, euskaldunak bigarren mailako herritarrak izatera zokoratuz horrenbestez; are gehiago, euskaldunen eta erdaldunen arteko kultur haustura sustatu dute. Bilboko Udalak ez du Euskarari buruzko diagnosi globalik egin azken 25 urteotan; euskarariko daraman politikak ez du ia aldaketarik izan 80ko hamarkadaren hasieratik, azken urteotan atzerakada nabermanak izan direlarik, batez ere helduen euskalduntzerako diru laguntzen arloan. Ez du bermatzen ezta herritarrekiko arreta euskaraz izatea ere.

Behar beharrezkoa da, beraz, Bilboko Udalak konpromiso argia eta erabakiorra hartzea euskarari eta, beraz, herritar euskaldunei, gaztelaniaren estatus berdina bermatzeko. Horrek esan nahi du, handitu egin behar duela euskara berrezkuratzeko ahalegina. Bilboko errealitate euskaldunak eta dituen premien tamainak eskatzen duen konpromisoa, beraz.

Ezin dugu ahaztu, gainera, Bilbo gure herriko eskualde populatuaren buru dela. Bilbo Handian Euskal Herri osoko euskaldun kopuruaren ia % 25a bizi da; gure eskualdeko biztanleen ia %50a euskalduna edo ia euskalduna da. Zoritxarrez, gure instituzioak ez dira errealitate horren isla. Bilbon gertatzen denaren itzalak ez du hartzen soilik gure hiria eta Abraren artean metatzen den Euskal Herriko biztanleen heren hori, Euskal Herri osoa baizik.

Horregatik, beharrezkoa da Bilboko Udalak zenbait neurri lehenbailehen hartzea. Guk hurrengo lau urteotan neurri horiek bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu:

34. Euskararen normalizazioa udal ekintzen ardatz estrategiko bezala onartu.
35. Euskararen egoerari buruzko Diagnostiko Global bat egin, euskararen alde diharduten eragile sozialekin batera, eta euskararen normalizazioa erdiesteko neurri sustatzaileak eta betearazleak jasoko dituen Plan Estrategikoa onartu.
36. Herritar euskaldunen eskubideak, alegia, udalerrian euskararen ofizialtasuna bermatzeko, ordenantza bat onartu eta betearazi.
37. Udalean euskara normalizatzeko Plan eraginkor bat onartu eta bete.
38. Agintari euskaldunak jarri arlo estrategikoen buru, alkatetzatik hasita.
39. Bilboko elkarteetan euskararen erabilpena sustatzeko neurri bereziak hartzea: euskalduntzerako laguntzak eta erabilpenerako trebakuntza programa. Hartzaileak: mugimendu sozialak, auzo-elkarteak, dendari elkarteak eta bestelako elkarteak profesionalen...
40. Hizkuntza-paisaian euskararen presentzia handitu: dendari eta ostalariekin euskarazko errotulazioari buruzko hitzarmenak egin eta baita Bilbon iragarkiak jartzen dituzten enpresekin.
41. Premia bereziarekin, honako hauek onartu:
 - a. Udalaren Sail, Zerbitzu eta eremu guztietan, baita Udalak kontrataturiko eta azpikontrataturiko enpresa guztietan herritarrekiko arreta euskaraz ere eskainiko dela bermatzeko neurriak, legearen eta Udalak duela 15 urte onarturiko arauen gutxiengoko bermeak betetzeko.

- b. Helduen euskalduntzerako diru laguntzak berrezarri, herritar guztientzat, oinarrizko errenta jasotzea dagokienei gastuen %100ean laguntzeko mailan.
- c. D ereduarekiko sustapen instituzionala eta ikastetxe hauetako ekipamenduekiko inbertsioak handitzea.
- d. Euskal hedabideen aldeko laguntza instituzional eta ekonomikoa, hedabideak udalerrri, eskualde, herrialde zein nazio mailakoak izan.
- e. Gazteria eta aisialdi programa guztiak eraberritu, Bilboko haurrek eta gazteek programa hauetan parte hartzen duen bitartean euskaraz bizitzea bermatuta izan dezaten.

Hiri eredua

Etxebizitza

Ezker Abertzalearen abiapuntua da **etxebizitza eskubide bat** dela eta horregatik herritar guztiei bizitoki duina bermatu behar zaie.

Aurreko helburua lortze aldera **etxebizitza politika sozial integrala** bultzatuko dugu, bai babes ofizialetako etxeak eta bai etxe pribatuak kontuan hartuta, **alokairu soziala bultzatuz** etxebizitza behar duten guztien eskubidea bermatzeko.

Espazioa mugatua da, dugu gure lurra zaindu behar dugu, dagoeneko okupazio eta ustiaketa maila izugarria delako. Horregatik etxe berriak eraiki baino **dauden etxebizitzak eta eraikinak erabili** behar dira. Etxebizitza hutsak merkatura ateratzeko neurriak premiazoak dira.

Etxebizitza politikak hirigintza eta garapen ereduarekin zerikusi handia dauka. **Gune mistoen alde egin** behar dugu, **bizilekua – jarduera ekonomikoa – lana – aisialdia** batzen dituzten guneak mugikortasuna mugatze aldera eta gure auzoak bizirik mantentzeko.

Gure etxebizitza politikak beharizanen desberdintasuna kontuan hartuko du eta horregatik, **etxebizitzaren tipologiaren aniztasunaren alde** egingo dugu. Beharizanak desberdinak dira pertsonaren edo familia motaren arabera, edo bizitzako etapen arabera (gazte ikaslea izanik, edo bikotekidearekin bizi edo ez, seme-alabak eduki edo ez, zahartzaroan, dependentzia egoera batean egon edo ez...)

Genero ikuspuntua ere kontuan hartu behar da eta honek hirigintza eredian eta etxebizitza-politikan bere isla eduki behar du, adibidez, *puntu beltzak* direnak desagerraraziz. Era berean, etxebizitza-blokeetan zerbitzu komunak jartzearen aukera ere aintzat hartuko dugu (jantokiak, aisialdirako guneak, garbigailua...).

Ezker Abertzalearen lehentasuna, beraz, **etxebizitzak alokairuan eskuratzeko aukera bermatzea** izango da.

PROPOSAMENAK

A- Hirigintza arloan hartu beharreko neurriak

42. Hirigintza Planen berraztertzea **bizitokiak, merkataritzak, jarduera ekonomikoak eta aisialdiak bat egiten duten eremu mistoak sortzea** ahalbidetzeko.
43. Hiri barnean bertan **jarduera ekonomiko garbiak jartzea** sustatuko dugu.
44. Etxebizitza **berriak egitea mugatu**. Eraiki-berri asko eta asko saldu gabe dago eta ez dago nahiko eskaerarik merkatuan.
45. Eraikitzekotan, **tipologia anitzeko etxebizitzak egitea sustatzea** (beharizan desberdinetara egokituko direnak bermatuz).
46. Etxebizitza politika ingurumen **politikarekin uztartuz**, etxeetako isolamendu termikoa bermatu, euriaren aprobetxamendua kontuan hartu eta material ekologikoen erabilpena zabaldu.
47. Lurzoru **erreserba publikoa ez saldu eta handitu**, beharizan berriak daudenerako eta espekulazioari aurre egiteko.

B- Etxebizitza udal politika publikoa eta eraginkorra

48. Etxebizitzen **udal parke publikoa handitu** politika eraginkorra egin ahal izateko
49. Lurzoru urbanizagarria kalifikatu eraikiko diren **etxebizitzen %60 babes sozialekoak** izango direla ezarriz.
50. Aparkalekuen arazoa ere kontuan hartu. **Aparkaleku publikoak eskaini alokairuan, prezio eskuragarrietan** eta bizitokitik gertu.
51. Gazte eta ikasleentzako **moldatutako etxebizitzak**, zerbitzu komunekin, sustatu eta eskaini.
52. Tratu txarrak jasan dituzten emakumeak, baliabiderik ez daukaten eta umeak dituzten emakumeak eta egoera bereziki zail eta gogorretan dauden **emakumeak bizi ahal izateko etxebizitzak egokitzea, zerbitzu komunitarioekin.**
53. **Adinekoentzat**, batez ere bakarrik edota **dependentzia egoeran** daudenak, **moldatutako etxebizitzak** egitea sustatzea, non egoki artatuak egon daitezkeen.
54. Elkarlan formula berriak sustatu, **etxebizitzak konpartitzeko helburuarekin**, adibidez, gazte eta adinekoen artean, edo dependentzia duena eta etxebizitza behar duenaren artean.
55. **Ezgaitasunak** dituzten pertsonentzako **etxebizitzak moldatzeko laguntzak** handitu.

D- Birgaitzea gogotsu bultzatu

56. Oso egoera txarretan dagoen **infra-etxeak bota** (Basurtu - Errekaldeko goiko auzoak, Buia, Zorrotzako Zazpi Landa...) eta **auzokideak euren bizitokitik gertu birkokatu**, etxebizitza eskubidea errespetatuz.
57. **Birgaitze politika Bilbo osora zabaldu eta lehentasuntzat hartu**, aurrekontua nabarmenki handituz.
58. **Beste** erabilera izan duten **eraikin hutsak etxebizitzak egiteko erabili**, erakin industrialak edo komertzialak moldatuz.
59. **Igogailuen instalazioa erraztu** eta diru-laguntzak handitu.

E- Alokairua hedatu behar da

60. **Babes** ofizialeko **etxebizitzak alokairuan baino ez dira esleituko**, ez dira salduko.
61. Guztientzako etxebizitza izateko eskubidea bermatzeko, **alokairu soziala bultzatu** –etxeak jabego pribatua edo publikoan izan– alokairua eskuragarri izateko: **diru-sarreraren %15 ez gainditzea**, beti ere, gainontzeko gastuentzako lanbide arteko gutxieneko soldataren kopurua gelditzen bada.
62. **Diru-sarreraren ganean errentak dakarren portzentajea diru-sarrera urriekin txikituko** da eta diru-sarrera altuekin progresiboa izango da.
63. **Diru sarrerarik ez daukatenei ere etxebizitza bat edukitzeko eskubidea** bermatuko zaie.

64. Alokairuen errentak **diru-sarrerak modu esanguratsuan aldatu badira berraztertu** eta, gutxienez, bost urtero, errenta diru-sarreraren arabera egokitzeko.
65. Etxebizitza sozialak alokairuan **esleitzeko beharrizanen arabera irizpideak erabiliko dira eta ez zozketa**.
66. **Auzotarrak nor bere auzoan gelditzea**, nahi izan ezker, kontuan hartuko da.
67. Esleitutako etxebizitzaren arteko **elkartrukea sustatuko da**.

* Etxebizitza hutsak merkatura ateratzeko ezinbesteko neurriak hartu:

a) Sustapen neurriak:

68. Etxeak **birgaitzeko diru-laguntzak eman etxea epe baterako alokairuan eskaintzearen truke**.
69. Etxeak **alokatzeko udalaren bitartekaritza izan**, etxearen erabilera zuzena eta errenta jasoko denaren berme gisa.

b) Neurri hertsatzaileak:

70. **Etxebizitza hutsa edukitzeagatik zergak handitu**.
71. **Premiazko egoeretan etxeak desjabetzea**.
72. Etxebizitzaren beharra dagoen heinean, **hutsik dauden etxeak alokairu sozialean ateratzen ahalbideratuko duen Udal Ordenantza** egingo dugu.

Hiri eredu iraunkorra - Hirigintza

Hazkunde mugagabea, kontsumo neurrigabea, etxebizitzaren burbuila eta lurzorua espekulazioan oinarritutako jendarte ereduak porrot egin du, eta orain ziklo hori berriz hastea eragotzi behar dugu. Besteak beste, prekaritatea, pobrezia, elkartasunik eza eta ekonomia hipotekatua eragin ditu. Neoliberalismotik ez dago aldaketa sozialerako inolako aukerarik.

Ezkerrak beste eredu bat proposatu behar du: ilusioa piztuko duen eredu, enplegua sortuko duena, jendartearen nahiz osasunaren arloko babesa bermatuko duena, arnasten dugun airearen kalitatea hobetuko duena... Eredu berri horretan, hiri honetan bizi garenok beharrezkoak ditugun erabiltze-ondasunak sortzea izango da ekonomiaren oinarria.

Hona hemen ezker abertzaleak bultzatuko dituen printzipioak:

- Hiri berton bizi garenontzat izatea. **Proiektu handiei eta haien erabilerei buruzko erabakiak hartzeko eskubidea** erabili behar dugu.
- Erabakitzeke dauden proiektuen inguruan **herritarren parte hartzea sustatzea** eta behar eta kezkei behar den moduan erantzutea.
- **Auzoen eta hiriaren erdigunearen arteko oreka mantentzea**. Diru eta bitarteko inbertsioa beharren arabera banatu behar da herritarren interesak lehen lerrera eramanda.
- Inposatzen zaigun garapen ereduaren aurrean, **bestelako ereduaren inguruan eztabaidak sustatu**.
- Dagoeneko hasia dagoen **Bilboko Plan Orokorraren tramitazioan partaidetza mekanismoak ziurtatzea**. Gizarte eragileen parte hartzea Planeamenduaren kontseiluan bermatzea.

- Transformazio prozesuen ondorioz emandako jarduera aldaketetan, **lurzoruaren okupazioa eta goi dentsifikazioa mugatu behar da**, etxebizitza behar errealei doitzuz.
- Dagoeneko **onartuak dauden proiektuen beharra berraztertzea**. Krisi ekonomikoaren eraginez edo bestelako arrazoiengatik gelditurik dauden proiektuen inguruan hausnarketarako eta berrantolaketakarako tarteak irekitzea.
- Kalitatezko **espazio berdeen eta librean berreskurapena**, hiriaren perimetroa joan beharrik gabe.
- **Airearen kalitatea hobetzeko eta zarata gutxitzeko** konpromiso irmoa. Ildo horretan, hiriaren erdialdean ez da industria kutsatzailerik egongo.
- Bilbo Handiaren eragin eremuan gaudela kontuan izatea. Bilbo ez da uharte bat ozeanoaren erdian, eta horrek eragina dauka garraioan, azpiegitura handietan, ekipamenduetan, osasunean, elikaduran... **Ekoizpenerako**, banaketarako eta kontsumorako **ziklo laburrak** ezarri behar dira.
- Ondasunen diseinua, ekoizpena eta kontsumoa benetako beharretara egokitzea. Gure natur inguruneak ezartzen dizkigun mugak kontuan izatea.
- **Lehen sektorea** berreskuratzea, kalitate oneko eta bidezko prezioko **elikagaien iturri hurbil** gisa eta eskala handiko mugikortasuna saihesteko.
- Ahal den guztia gure natur ingurune hurbilean ekoiztea, inportazioak ahal beste murriztea (gaur egun ordainketa balantza desorekatuta dago, inportazioak esportazioak baino ugariagoak direlako), **ondasunak urrun ekoizteak dakarren mugikortasuna saihestea**, merkaturatze prozesuan artekariak desagerraraztea, merkataritza hurbila sortzea.
- Merkataritza gune handien aurrean **denda txikiak sustatzea**. Beste onura batzuen artean, politika horrek tokian tokiko enplegua sortzen du, prezioak lehiaren bidez erregulatzen ditu, jendarte bizitza ematen die auzoei eta premiarik gabe eragindako mugikortasuna eragozten du... Merkataritza gune handien ereduak ez dakar, inondik inora ere, horrelako onurarik.
- Industria ingurune hurbileko biztanleriaren beharretara eta kontsumo mailara egokitzea, hala industria motei nola instalazioen tamainari dagokienez.
- Familien zorpetzea 5 urtetik 10 urtera bitarteko ziklo laburretan ordain daitezkeen kopuruetara murriztea.
- Sortzen diren finantza baliabideak hurbileko eragin eremuetan kontzentratzea, tokian tokiko proiektuak finantzatzeko. (Aurrezki kutxetan metatutako baliabideak, jendarte izaerakoak, Bizkaian kontu korrontek dituztenenak...).

Hirigintza eredu aldaketak

Eredu neoliberalak porrot egin du, ingurumenaren aldetik jasanezina zelako, eta beste eredu bat garatzea ezinbestekoa da. Eredu berriak kontuan izan behar du lehendik eraikita dagoena, eta orain arte garatutako aurrerapen teknologikoak aplikatu behar ditu, irisgarritasuna eta isolamendu termikoa hobetzeko, energia aurrezteko eta beste hainbat hobekuntza lortzeko. Gainera, aisialdirako eremuak berreskuratu eta ugaritu behar ditu: atsedenlekuak, haurrentzako jolasguneak, hirugarren adinekoentzako eremuak...

Hirigintzaren arloko interbentzio berrien **helburuak hauek izango dira:**

- Hirigintza plangintzetan **ekipamenduentzako lurzoruaren erreserba bultzatzea hauen kalitatea eta egokitasuna kontutan harturik**. Gaur egun ekipamenduentzat

bideratzen diren lurzorua beti daude hondakin eremu eta merkatuan balorerik ez daukaten eremuetan.

- Eraikinen mantentze lanak eta iraunkortasuna areagotzea.
- Isolamendu termikoa hobetzea.
- **Energia berriztagarrien** erabilera sustatzea.
- Euri ura baliatzeko eta berrerabiltzeko plangintzak egitea.
- **Hondakinen kudeaketa eredu aldetzea**, erabilera kolektiboak, birziklapena eta beste faktore batzuk kontuan izanik.
- Hirigintza honako oinarri hauen gainean sustatzea: hiri erabilera anitzeko eremu gisa eraikitzea, hiri eremuak birgaitzea eta zaharberitzea, gaur egungo espazioak eta eraikinak hobetzea eta berrerabiltzea.
- **Eremu grisekin edo gune ilunekin zer egin daitekeen aztertzea** (adibidez, artea fatxada eta hormetara eramatea).
- Auzoetako biztanle guztiak jendarteratzeko eta haien bizi kalitatea hobetzeko neurriak hartzea.
- Generoaren, jendarte mailaren edo beste edozein faktoreren arabera bereizkeriarik gabe herritar guztien parte hartzea errazteko **idea lehiaketak sustatzea**.

Hiri hondakin politika

Bilbo Euskal Herriko hiririk kutsatuena da. Gaur egungo hondakinen kudeaketak hondamendira garamatza. Horregatik, **lehenengo lehentasuna hondakinen sorrera murriztea** da eta gaur egun botatzen ditugun **gai eta ontzi ugariaren berrerabilpena**. Horrez gain, **gainontzeko hondakinen birziklapena**.

Gaur egungo kudeatzaileek, azken batean eta zikloa amaitzeko, tratamendu finalista erasokorrak beharrezkoak direla sinestarazi nahi digute, **Zabalgarbi erraustegia kasu. Planta toxiko honek herritarren osasuna arriskuan jarri eta ingurumena larri kaltetzen du**, izan ere, Europako enpresa kutsagarrienen zerrenda beltzean agertzen da.

Hondakinen politika horren **onuradunak sektoreko enpresa boteretsuak dira** (FCC...) eta **Bilboko Udalak zein Bizkaiko Aldundiak sistema hori onartu ez ezik, bultzatu egiten dute**. Enpresa horientzat zaborra etekin-iturria da: zenbat eta tona gehiago sortu, garraiatu eta tratatu orduan eta negozio probetxugarriagoa.

Hiri hondakin solidoen arazoa larria da, bai, baina ezker abertzaleak gure osasuna zaindu eta ingurumena babestuko duen konponbide baterantz urrats sendoak ematea du helburu: **atez ateko bilketa**.

Proposamenak:

Berdegunak eta aisialdia:

73. Abandoko trenbideak estaltzea eta haien gainean **Zabala eta San Frantzisko auzoak hiriaren erdialdearekin lotuko dituen parke publiko handi bat** egitea. Geltokiko hangarra erabilera publikorako kontserbatzea.
74. **Artxandako atsedeen eremua** suspertzea eta funikularraren erabilera sustatzea.
75. Enekuritik Ganguren mendiraino **oinezkoentzako gune** bat sortzea.
76. Artxandan **lorategi botaniko bat** egitea.
77. **Altamiran** “bizkar-zorro” motako **atseden eremu bat** sortzea.

78. Zorrotzatik San Ignazioraino eraztun formako oinezkoentzako pasealeku bat egitea.
79. **Bolintxuko** sistema naturala **kontserbatzea** eta akuiferoak lehengoratzea.
80. **Hiriko baratzeak** berrantolatzea eta **arautzea**, herritar guztiei erabiltzeko aukera emanez.
81. Auzoetan kaleko **berdeguneak ugaritzea**.
82. **Oinezkoentzako guneak auzo guztietara hedatzea**.

Saneamendurako eta edateko uraren hornidurarako sareak:

83. Ur zerbitzuaren **kudeaketa** publikoa.
84. Sollanotik Elejabarriraino edateko uraren hornidura sare nagusiak kanalizazio seguruagoa behar du lehenbailehen. Gaur egungo ubidearen ordezkari hodia jarri behar da trazatu osoan.
85. Saneamendurako eta edateko uraren hornidurarako sareak apurka-apurka berritu behar dira, zaharrenetatik hasita.

Hondakinen eta kutsaduraren arloko politika:

86. Zero **zabor** programa sustatzea: hondakinak gutxitzeko –bereziki ontziak– neurri eraginkorrak ezarri, erabilgarria den baina gaur egun botatzen ditugun gaien berrerabilpena bultzatu eta berezko tratamendu emateko asmoz hondakin organikoak aparte jaso.
87. Errausketa hondakinak tratatzeko sistema gisa baztertzea, osasunarentzat kaltegarria delako eta hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena lehenesten dituzten ereduak kontra doalako. **Zabalgarbiren aurka gaude**.
88. **Hondakinak atez ate biltzeko sistema bat apurka-apurka ezartzeko aukera** aztertzea, sistema horren bidez oso emaitza onak lortzen ari baitira Euskal Herriko zenbait udalerritan.
89. Industria kutsatzaile guztiei udal lizentzia kentzea.
90. **Zumalakarregiko gorpuen errausketa labea hiriaren erdigunetik ateratzea** eta errausketaren ordezkari alternatiba ekologikoak aztertzea.
91. **Garraio publikoa eta bizikleta sustatzea**, eta **hirian ibilgailu pribatuen kopurua gutxitzeko plan** bat egitea.

Udal merkatuak:

92. Auzo guztietan elikagaien udal merkatuak sortzea, prezioa eta kalitatea arautzeko sistema gisa eta hurbiltasuna sustatuz.

Teknologia berrien erabilera: komunikazioaren arloko teknologia berrien aplikazioen ugaritzeak zuhurtasun handiz jokatzeko eskatzen du. Izan ere, telefono mugikorrek, wifi sareek eta, oro har, irrati-frekuentzien bidezko komunikazio sistemen eskala handiko erabilera eragin kaltegarria izan dezakete ingurumenaren eta pertsonen osasunaren..

93. Teknologia horiek **kable bidez** erabiltzearen aldekoak gara, **sistema hori seguruagoa** delako, batez ere ikastetxeetan, barrutietako udalategietan, ospitaleetan eta plaza publikoetan.
94. Ingurumenari buruzko udal ordenantza egokitzea, **herritarrak telefonia mugikorrerako** eta telekomunikazioetarako antenek sortzen duten **kutsaduratik babesteko**. 0,1mW/cm²-tik gorako emisiorik ez onartzea.

Herritarren artea kalera:

95. Hiriak hobetzeko neurri nagusietako bat etxeak eta eraikinak berritzea da. Berritze-lanak baliatuz, dekorazio-arteak fatxadetara, lokal publikoetara eta metro geltokietara eraman eta publizitatea gutxitu behar da.

Erabiltzen ez diren industria-eraikinetarako erabilerak: Bilbok industria-hiria izateari utzi dio eta gaur egun hirugarren sektorea da nagusi. Prozesu horren ondorioz, garai batean industriarako erabili ziren hainbat eraikin erabilerarik gabe gelditu dira eta gaur egun ez daukate lekurik hiriaren planifikazioan.

96. Eraikin horiek egitura ona eta denetariko zerbitzuak dituzte (ura, argia, garraioa...). Horregatik, **ez dira eraitsi behar**, ez baztertuta utzi. Egokitze-lanak eginez, aisialdirako guneak, herritarrentzako ekipamenduak, gazteentzako bizilekuak edo auzoetako kultura guneak izan daitezke. Besteak beste, Iralan, Errekalden, Zorrotzaurren eta Uribarrin horrelako eraikinak ditugu.

Arkitektura eta Historia Ondarearen defentsa: Udalak lurzoru publikoaren salmentak, ondasun higiezinak jabetzak edo eraikin historikoen birdimentsionatze neurrigabeak dakartzan diru-sarrerak erabiltzen ditu bere aurrekontua handitzeko, inolako mugarik gabe. Horren ondorioz, arkitektura-ondare historikoa ia erabat desagertu da. Gaur egun, zaila da Bilboren historia ondare eraikiaren bidez aztertzea. Historia-ondarea desagerraraztea eta hiria turistentzako erakuslehi bihurtzea Europako beste hiri batzuetako joera orokorraren kontra doa.

97. Hiri baten historia bere arkitekturan irakurtzen da. Eraikinak birgaitzea eta kontserbatzea betebeharra da gure jatorria, iragana eta geroa ezagutarazi nahi ditugunontzat.

Hiri proiektuak

98. **Bolueta:**

- Eraikiko den etxebizitza kopurua(1.100) % 50 murriztea eta **%%60 Babes Sozialekoak izatea eta alokairu sozialean eskaintzea eta alokairua erabiltzailearen sarreraren %15 ez gaintzea.**
- Lurzoruaren kutsadura desagerraraztea
- Trenbidearen goialdean kalitatezko berdegune baten diseinua.
- Mota guztietako ekipamenduz hornitzea auzoa.

99. **Miribilla:**

- Lurzoruaren egonkortasuna eta balizko kutsadura ikertzea.

100. **Irala:**

- Eraikin industrialen zaharberritzea eta erabilera berriak egokitzea, adibidez, gazteentzako etxebizitzak.

101. **Errekalde:**

- Garraiobideen inguruko eztabaida arrazionala bultzatu. Tranbiaren inguruko eztabaida bukatutzat eman denean metro geltokiaren inguruko gaia gertutik jarraitu behar da.
- Irisgarritasun elementuen eraikuntza (igogailuak etab ...) eta zerbitzu iraunkorra.

102. **Zorrotza:**

- FEVE trenbidearen lurperatzea.

103. **Deustuibarra-Zorrotzaurre:**

- Instituzioek hirigintza operazio hau bere gain hartzea

- b. Sakoneko eztabaida sozialari bide ematea
- c. Eraikiko den etxebizitza kopurua 3.000 izatea, gehienez – Hirigintza Planaren hasierako zirriborroek aurreikusten zuten bezala–, haietariko %60 Babes Sozialekoak izatea eta alokairu sozialean eskaintzea eta alokairua erabiltzailearen sarreraren %15 ez gainditzea.
- d. Deustuko Kanaleko ibaiertz bietan parkerako leku nahikoa uztea
- e. Surbisak bere gain hartzen ez dituen birgaikuntzak sortu dituen kosteak gune horretan egingo den hirigintza operazioan lortuko den etekinetik ordaintzea
- f. Gauden krisi egoeran ez da ulertzen holako hirigintza operazio erraldoi honek egun dauden tailerrak eta lan egiten duten langileak kaltetzea. Beraz, tailerrei konponbide bat ematea eskatzeaz gain, **leku-aldaketa egon ezkerro langileentzako kosturik ez edukitzea** eskatzen dugu.

104. **San Ignazio:**

- a. **Etxebizitza gehiagorik ez eraikitzea** eta ibai ertzeko pasealekua mantentzea.
- b. **Kanala ez betetzeko konpromiso argia.**

105. **Olabeaga:**

- a. Etxebizitzen **birgaitze lanak** egitea. Birgaitu ezin diren etxebizitzak, babes ofizialeko etxebizitzengatik ordezkatzeta.

106. **Garellano:**

- a. **Medikuntza Eskola, Garellano** balio arkitektoniko eta kulturalera eremura **mugitzea**.

107. **Abandoko geltokia:**

- a. AHTren sarrerarekin egin nahi duten hiri espekulazioa **atzera botatzea**.

Mugikortasuna

Bidaien helburuak (lana, ikasketak, aisialdia, gestioak, erosketak...), distantziak (auzoetatik erdialdera, hiritik periferiara, bidaia luzeak...), lurraldearen orografia eta salgaien garraioa (elikagaiak, jantziak, ekipamendu-ondasunak...), horiexek dira ekonomiaren nahiz ingurumenaren arloko kostuak finkatzen dituzten faktoreak. Krisiaren, klima-aldaketaren eta gaixotasun zahar nahiz berrien garai honetan, inoiz baino premiazkoa zaigu baliabideak eta denborak optimizatzea, egiten diren bidaiak benetan beharrezkoak diren aztertzea eta, batez ere, alternatibak bilatzea: **hurbilekoa, oinezkoak, bizikleta eta garraiobide publikoak sustatu behar ditugu**.

Gure ustez, honako hauek izan behar dira biztanleentzako **hiri osasungarria** diseinatzeko eta eraikitzeko oinarriak: **oinetzkoehi lehentasuna ematea**; distantziak laburtzea, ekoizpenaren, banaketaren nahiz kontsumoaren arloko ziklo laburren bidez; garraio kolektiboa era masiboan erabiltzea; bizikleta garraiobide gisa sustatzea; lurraldea eta garraioa berrantolatzea; eta tarifak eta txartelak bateratzea.

Hiriko garraioa (garraio kolektiboa batez ere) udalaz gaineko eremuan aztertu behar da, garraio mota guztiak kontuan izanda. Besteak beste, ezinbestekoa da garraiobide guztien arteko

loturak ezartzea, **agintaritza bakarra** egotea (koordinazioa errazteko), eta txartel nahiz prezio bakarra ezartzea.

Mugikortasuna murriztu behar da, eraginkortasun planen bidez eta egiten diren bidaiak benetan beharrezkoak diren aztertuz. Honako hauek dira premia nagusiak:

- Salgaien **ekoizpenaren**, banaketaren eta kontsumoaren arloko **ziklo laburrak** sustatzea.
- **Administrazioaren deszentralizazioa** sustatzea, auzoetan **kudeaketa publiko integralerako** bulegoak sortzea.
- **Merkataritza gune handien hedapena** geldiaraztea, hiria eta auzoak sustatuz.
- **Ikastegiak berrantolatzea eta kokapena aztertzea**, batez ere goi-mailako irakaskuntzakoak.

Bizkaiko hiriburuan egunero egiten diren **1.059.492 joan-etorrietatik Gasteiz eta Donostia helmuga dutenak 8.122 baino ez dira**. Horrek zera esan nahi du: Bilbotik egiten diren joan-etorri guztietatik, % 0,7k soilik dute helburu EAeko beste hiriburuak.

Aldiz, hiriburutik egunero irteten diren **984.114 joan-etorrien helburua eskualdea bera da**. Datu hori oso garrantzitsua da inbertsioak zer-nolako azpiegituretan egin behar diren jakiteko eta inbertsioak egiterakoan zein azpiegitura lehenetsi behar diren erabakitzeke.

Horren aurrean, honako hauek dira ezker abertzalearen **proposamenak**:

108. Garraibide guztietarako **txartel bakarra** sortzea.
109. Udalerrian garraio publikoan egiten diren bidaiak guztietarako prezio edo **tarifa bakarra** ezartzea, **erabilitako garraibide kopurua edozein dela ere**.
110. **Bilbobus lineak berrantolatzea**.
111. **Garraio zerbitzu publikoa udalak berak kudeatzea**.
112. **Garraio publikoari erabateko lehentasuna ematea eta haren erabilera sustatzea**, honako neurri hauek hartuz:
 - Kolektiborik behartsuenentzat eta 16 urtetik beherakoentzat **doako tarifa berrezartzea**.
 - **Bonu Sozialaren** onuradunen zerrendan honako hauek sartzea:
 - Pobrezia-mugaren azpitik dauden famili unitateetako kideak.
 - Langabeak.
 - Diru-sarrerarik gabeko ikasleak.
113. **Aldirietako aparkalekuak** egitea, garraibide publikoen geltokietatik hurbil, ibilgailuak hirian sar ez daitezen.
114. Aukera-guneetan geltoki intermodalak eta hiriko garraibideekiko loturak jartzea, trafiko astuna hiriaren erdialderaino sar ez dadin.
115. **Tranbiaren ibilbidearen eraztuna bukatzea**, Errekalde, Irala, San Adrian, Miribilla eta Bilbo Zaharra auzoetatik igaroz.
116. **Bizikleta garraibide gisa sustatzea**. Auzo guztiak laneko, aisialdiko, ikasketetako eta administrazioko gune nagusiekin lotuko dituen bidegorri plan integral bat egitea. Ibilgailu pribatuaren aurrean bizikletari lehentasuna ematea.
117. **Bizikletak alokatzeko udal sistema auzo guztietara** hedatzea.

118. Abiadura Handiko Trenaren aurka gaude, eta **Bilbo** Txori Herrirekin, Durangaldearekin eta **inguruko beste eskualde batzuekin lotzen dituen garraio publikoa** bultzatzearen alde.
119. **Arangoitira iristeko** arazoak lehenbailehen konpontzea. Auzokideekin batera, kudeaketa publikoko igogailu berri bat sortzea. **Begoñako eta Solokoetxeko igogailuen kudeaketa publikoa.**
120. Goiko auzoetara erraz iristeko azpiegiturak egitea: igogailuak, eskailera mekanikoak nahiz etengabeko autobus-zerbitzuak.
121. Hirian **ibiltzeko oztopoak** identifikatzea eta **kentzea**, eraikinetan, kaleetan, garraiobideetan, ikastetxeetan, etxebizitzetan, osasun-etxeetan, lantokietan eta gainerako instalazio guztietan, barruan nahiz kanpoan.
122. Itsasadarreko ibai-garraioa sustatzea, Bilbotik Santurtziraino, presarik ez dutenentzat edo gure ondarea ikusi nahi dutenentzat.
123. Artxandako funikularraren ibilbidearen erdian geltoki bat egitea..

Jendarte eredua

Hezkuntza

Gaur egun, hezkuntzaren arloko aginpide nagusiak ez daude udalen esku. Udal asko aitzakia horretaz baliatzen dira hezkuntzari ahalegin gutxi eta aurrekontu urria eskaintzeko. Bilboko Udala horietako bat da, eta hauxe da egiten duen bakarra:

- udal ikastetxeak egoera onean edukitzea, zaintzea eta garbitzea
- “itxurazko” hezkuntza-programa batzuk kudeatzea
- dirulaguntza urriak ematea
- noizean behin haur-eskolaren bat eraikitzea, herritarren presioak beharturik

Proposamenak

124. **Haur-eskolen sarea** handitzea, Bilboko **auzo guztietan 0 urtetik 2 urtera bitarteko haurrentzako zentro bat** egongo dela eta eskari osoari erantzuteko behar beste plaza egongo direla bermatuz.
125. Udalak berriro hartu behar du bere gain **haur-eskoletako jantoki zerbitzua**. Bi aukera daude: haur-eskolak egokitzea janaria bertan prestatu ahal izateko, edo janaria modu zentralizatuan prestatzea eta gero eskola guztietara banatzea.
126. Hala **mantentze-lanak** nola **hobekuntzak** (inbertsioak) egitean, **ikastetxeetako behar guzti-guztiak** kontuan hartzea. Arlo horretarako udal aurrekontuak goera handia izan behar du.
127. Ikastetxeetako **udal langileen kopurua handitzea**. Udal langile guztiak **euskaldunak** izango dira.
128. **Ikastetxe berriak eraikitzea**, beharrezkoa den eta matrikula kopuruak nahiz demografia aurreikuspenek hala eskatzen duten lekuetan. Lehen fase batean bi ikastetxe eraikiko lirateke: **Miribillan eta Txurdinagan**.
129. **Ikasketetarako jendarte-heziketako tailerrak** eta programa horren barruan eskaintzen diren guraso-eskolak Bilboko auzo guztietara hedatzea.
130. **Udal ikastetxeak eskola orduetatik kanpo irekitzea eta erabili ahal izatea** (baita asteburuetan ere), aisialdiaren, kulturaren, hezkuntzaren, kirolaren edo elkartearen arloko jardueretarako, inolako trabarik edo fidantzarik gabe. Erabiltzaileak arduratuko dira instalazioak egoera onean edukitzeaz, zaintzeaz eta garbitzeaz. Halaber, instalazioei kalteren bat eginez gero, erabiltzaileek ordainduko lituzkete horrek eragindako gastuak.
131. Bilboko Udalak, jendarte nahiz hezkuntza eragileekin elkarlanean, **eskola mapa berria egiteari** ekin behar dio, auzo eta ikastetxe guztietako beharrak kontuan hartuz eta herritarrek euskarazko irakaskuntzaren alde egindako hautu argiari erantzunez. Eskola mapa berriak **desberdintasunak gainditu** eta ikastetxeetako **marjinazio arriskuak desagerrarazi** behar ditu.
132. **Bilboko Hezkuntza Kontseilua** sortu behar da, udalerriko ikastetxe guztietako ordezkariekin. Hezkuntza Kontseiluak ikastetxeetarako eta herritar guztientzako **ekintza plan komunak** egingo ditu. Honako hauek dira lehentasunak:
 - **Euskara sustatzeko jarduera** nahikoak eskaintzea. Izan ere, euskara ezin da ikasketetarako hizkuntza soilik izan, edozein egoeratan komunikatzeko

hizkuntza izan behar da. Euskararekiko atxikimendua indartu eta euskaraz bizitzen laguntzen duten ohiturak sustatu behar dira.

- **Koedukazio programak** garatzeko hitzarmenak, bi helburu hauekin: **gizon eta emakumeen arteko berdintasun “eraginkorra” eta “benetakoa”** lortzea eta indarkeria matxista desagerraraztea.
- **Aniztasunaren trataerarako programak** garatzeko hitzarmenak, honako helburu hauekin: aniztasuna onartzea, ondo kudeatzea eta kulturen arteko harremanak sustatzea.
- **Bilbon ordezkaturik dauden kultura guztiek elkar ezagutzeko** jarduerak antolatzea.
- **Euskal Curriculumean oinarritutako programazioak eta unitate didaktikoak**, hizkuntzaren, kulturaren nahiz sozioekonomiaren arloan Euskal Herriko errealitatea jasotzeko eta gure hezkuntza sistema propioa eraikitzen joateko.
- **Eskola eta kalea uztartzea, aisialdiko jarduerak eta jaiak baliatuz:** inauteriak, kirolak, kultur ekimenak, Korrika...
- **Beste lurralde edo nazio batzuetako ikastetxeekiko harremanak eta trukeak** sustatzea.
- **Gurasoentzako prestakuntza** hitzaldiak eta ikastaroak, hezkuntzarekin zerikusia duten gaietarako buruzkoak.

Politika feminista

Bilbo eskubide berdintasunean eraikitako hiria izateko eta emakumezko gure autonomia propioa eskura dezagun ezinbestekoa dugu, zeharkotasun estrategiaren bidez, **politika feminista integrala** bultzatzea. Hau da, genero ikuspegiak udal arlo ezberdinetan integratuta egon behar du, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezan ezberdinak era sistematikoan aztertuz eta horretarako politika eta ekintza guztietan, maila orotan eta horien plangintzan, eta ebaluazio fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta parekidetasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduerak zehatzak txertatuz.

Ezker abertzalean Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Karta ezinbesteko erreferentzia dugu. Bertan jasotzen baita Euskal Herriko emakumeon egoeraren zertzeladak, eraiki nahi dugun jendarte berriaren baloreak, emakumeoi dagokigun hiritartasunaren aitortza eta jendartearen eraldatzeko ezinbesteko eskubideak. Karta, beraz, **tresna garrantzitsutzat** jotzen dugu Bilboko politika feminista diseinatzerakoan.

Politika honen definizioa **Mugimendu Feminista** eta emakume taldeekin egin behar dela uste dugu. Hauen parte hartzeak politika feminista erreala definitzea ahalbideratuko du.

Proposamenak

Berdintasun politika (aukera eta eskubide berdinarak. Emakumeon bizi-baldintzak duinen aldeko politika)

133. Udalak gai hau zeharkako, dinamiko eta iraunkortzat hartuko du.
134. **Berdintasun plan** eraginkorra egin, betetzen dela ziurtatu, barne tentsionamendua mantendu eta planaren ebaluazio iraunkorra egitea.
135. Berdintasun plana garatzen dela ziurtatuko duten **berdintasun teknikariak** kokatuko dira udal arlo guztietan.

136. Udal sail guztien arduradun politiko guztiak batuko dituen **Batzordea** eratuko da era iraunkorrean, berdintasun politikak udal arlo guztietan gauzatu ahal izateko.
137. Emakumeen Berdintasunerako **Kontseiluak** definizioz kontsultiboa izanik, **erabakiorra izango den markoa behar dugu**. Horretarako **emakumeon mahaia osatuko dugu, udal akordio bidez, mahai honetan egiten diren gogoetak kontutan hartuko direla eta izaera erabakitzailea izango duela bermatuko dugu. Mahaiak ondorengo ezaugarriak izango ditu:**
- a. Emakumeen eta udaletxearen arteko kontrastea, harremana eta elkarlana bultzatuko ditu, Udaletik sustatzen den politika feminista emakumeen mugimenduaren norabidean joan dadin.
138. Berdintasun arloak kudeatzen dituen programen artean, Berdintasun Plana aurrera eramateko Programa berezia sortuko dugu
139. **Arloko aurrekontua** handituko dugu eta genero ikuspegia barneratzen dituzten **Aurrekontuak** garatzea.
140. **Emakumeon etxea** proiektua proposatuko dugu eta ezaugarri hauek izango ditu:
- b. Emakumeon mahaia gidatutakoa
 - c. Emakumeon parte-hartzea sustatzeko espazioa
 - d. Formakuntza espazioa
 - e. Mugimendu feministarentzako espazioa baina ordezkatu gabe.
 - f. Espazio librea emakumeentzako
 - g. Asistentzia jasotzeko bulego bereziak izango ditu
 - h. Udaletxea eta mugimendu feminista eta emakumeon mugimenduak adostutako proiektua izango da. Sortze prozesua adostu behar dugu

Emakumearen kontrako indarkeriari aurre egiteko politikak

141. Bilboko Udalak honen inguruan duen **programaren gaineko sozializazio kanpaina erraldoia egitea**. Oraindik orain asko eta asko dira hau ezagutzen ez duten emakumeak.
142. Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuaren telefono zenbakia erraztea, gaur egunean dagoena baino gogoratzeko errazagoa.
143. Eraso sexisten aurrean erantzun **protokolo bat zehaztea**.
144. Erasotua den emakumeari begirako **24 orduko asistentzia bermatzea**.
145. Erasotua den emakumeari begirako urgentziatzko diru laguntzak eskaintzea.
- a. Urgentziatzko neurriak aplikatzen haratago iraunkorragoak izango diren neurriak aplikatzea.
 - b. Emakumearen independentzia ekonomikoa eta laguntza psikologikoa bermatzea.
146. **Genero indarkeria pairatu duten emakumezkoentzat abegi etxe gehiago ireki** eta, horretarako, udal etxebizitzetako portzentaje bat

erreserbatu, edozein emakumeak indarkeria pairatu duen une beran bestelako tramiterik gabe hauetan sarrera zuzenean izateko.

147. Indarkeria sexistaren gertakariei erantzuteko langileri formatua eta propioa ezartzea.

148. Erasotzaileei begirako jarraipen mekanismoak ezartzea. Bai juridikoak bai sozialak.

149. Etorkinen aldagaia aintzat hartzea eta paperarik gabeko emakumeei begirako babes neurriak

150. Prebentzioaren eremuan, kontzientziazio lana egitea, osasungintzan, aisialdian eta hezkuntzan hezkidetzaren programak garatuz:

a. Hezkidetzaren inguruko formazioa eskaini hezkuntza komunitatean dauden gizon-emakume guztiei (irakasle, administrazio langile, ikasle eta gurasoak).

b. Sexu jazarpenak ekiditeko kontzientziazio lana egin enpresa publikoetan.

c. Sentsibilizazio kanpainak egitea, Martxoak 8 eta Azaroak 25a baino haratago, jendarte osoari zuzenduak, emakumeen aurkako indarkeriarekin bukatzea guztion lana dela ohartaraziz.

151. Emakumeen Asanbladak abiatu duen dinamikaren bat egitea zeinek **Bizente Deunaren plazaren izena aldatzea proposatzen duen Azaroaren 25eko** izenarengatik, emakumeen kontrako indarkeria ikustarazteko helburuarekin.

Emakumearen bizi baldintza duinetarako premisak

Gure jendartean, ekonomiaren hazkundera baldin badago ere, eskubide hauen ukazioa da pobrezia eta bazterketa soziala jendarteko maila guztietan abiadura handiz zabaltzea ahalbideratzen ari da, berebiziko larritasunez ematen delarik lehenengo lana bilatzen ari diren edo eta noiz behinkako lanean ari diren gazteen artean eta emakumeengan (alargunak, pentsiodunak, guraso bakarreko familiak...), non bazterketa soziala pairatzeko aukera gehien dituzten sektore ahulenetan bihurtzen ari diren.

Lanerako eskubidea eta emakumeok ekonomiaren subjektuak kontsideratuak izateko dugun eskubidea bermatzeko:

152. Pentsio duina eskuratu ahal izateko **Asegurantza Sozialerako emakumeen kotizazioa konpentsatzeko udal lan poltsa bat osatzea.**

153. Etxeeko langileen lan baldintza eta soldata duinak bermatzea.

154. Haur eskolen kopuru handitzea, auzo bakoitzeko haur eskola publiko bana zabaltzeko plana abian jarri.

155. Hirugarren adineko zentroen kopuru handitzea eta publikotasunaren aldeko apustua.

156. Zaintza lanak behar dituzten pertsonen begirako zerbitzuak eskaintzea eta bermatzea.

157. Enplegu zerbitzuetan genero ikuspegia bermatzea.

158. Emakumeei lan egiteko aukerak erraztea. Enplegu zerbitzuen inguruko informazioa eskaini, diskriminazio positiboa bultzatu...

159. Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko sentsibilizazio lana egitea.

Eskubide sozialak

160. Modulu **Psiko sozialen kopurua handitzea** auzoz auzoko beharren arabera.

161. **Osasun atentzio zerbitzuak ez murrizteko aldarrikapena egitea** (zerbitzu ginekologikoak, anbulategien ordutegia,...)

162. Sexualitate aske baten aldeko informazioa eta formazioa eskaintzea.

Prostituzioa

Prostituzioa emakumeek jendartean nahiz lan munduan jasaten duten mendekotasunaren ondorioa da.

Ikuspegi feminista batetik, emakume sektore batek pairatzen duen diskriminazio mota horren kontra borrokatu nahi dugulako planteatzen dugu gai hau. Prostituten eta prostituzioaren inguruan teorizatu eta planteatzen dugun guztia proposamenak besterik ez dira; denborak eta, batez ere, prostitutek esango digute proposamen horiek zuzenak ala okerrak diren. Errealitatea aurreiritzirik gabe aztertuz gero, nabaria da prostituzioan aritzen diren emakumeak estigmatizatuta eta diskriminatuta daudela.

Emakundek bildutako datuen arabera, 2007. urtean 879 emakume aritzen ziren prostituzioan Bizkaian, % 50 baino gehiago klubetan, beste ehuneko handi bat etxebizitzetan eta kopuru txiki bat kalean. Guztira, Bizkaian 35 klub eta 107 etxebizitza erabiltzen ziren prostituziorako.

Bilbon, **kaleko prostituzioaren** gune nagusiak **Gorte kalea, Zabalburu eta Miribilla** dira. Gaur egungo egoera aztertu beharko litzateke, jasaten dugun egiturazko krisiaren eragina kontuan hartuz.

- Bilbon, prostituziorako erabiltzen diren lokalak arautu nahi dituen ordenantza bertan behera uztea proposatzen dugu, prostitutek bizi duten errealitatea aintzat hartzen ez duelako. Hala ere, prostituziorako lokalen edo klubaren ordutegiak eta ezaugarriak arautu beharko liratekeela uste dugu.

163. Herritarrak **sentsibilizatzeko neurriak** hartzea proposatzen dugu:

- **Jendartearen iritzia** aldatzeko sentsibilizazio kanpainak, genero rola aldatu behar direla nabarmenduz.
- Jendarteak prostituzioaz duen iritzia aldarazteko eta sexu merkataritza gaitzesteko sentsibilizazio kanpainak.
- Prostituzioaren fenomenoaren ikertzea.
- **Prebentziorako eta laguntzarako** prestakuntza prostituzioan aritzen diren emakumeekin lan egiten duten profesionalentzat.

164. Prostituzioan aritzen diren **pertsonak babestea**.

- Prostituzioan aritzen diren pertsonen laguntza eta babesa ematea.
- Prostituzioan aritzen diren **emakumeen elkarteak sustatzea eta onartzea**.
- Prostituzioan aritzen diren **etorkinen erregularizazioa**.

165. Prostituzioan aritzen diren pertsonen **bizi baldintzak hobetzea**.

- **Praktika seguruak sustatzea**, sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunak prebenitzeko.
- **Nahitaezko azterketa medikoak**.
- **Prostituzioa uzteko erabakia erraztea eta sustatzea**, neurri integralen bidez.

166. **Proxenetismoa debekatzea eta jazartzea**. Pertsona trafikoaren, estortsioaren eta xantaiaren kontra jardutea.

167. Bilbon saltzen diren egunkariak **Gasteizko Legebiltzarreko 2005eko legea betetzera behartuko dituen udal ordenantza bat egitea** proposatzen dugu. Lege horren helburua hedabide guztietan sexu merkataritzaren publizitatea desagerraraztea da.

168. Lege hori betetzen ez duten **hedabideetan instituzioen iragarkirik ez jartzea** eta beraiekiko lankidetzara oro etetea.

Migrazioak eta aniztasuna

Migrazioen arloan hiru helburu estrategiko ditugu:

- 1) **Pertsona guztiak herritartasuna lortzea** (hau da, nazionalitatea eta bizileku eskubidea) eta **eskubide unibertsal guztiak erabili** ahal izatea: eskubide politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak.
- 2) **Gure jendartean aurki daitezkeen kultura guztiak errespetatzea eta bizikidetzara sustatzea**, beste herri batzuk jatorri dituzten eta gure artean bizi diren pertsonak eta kolektiboak gure jendarteko kideak direlako.
- 3) Migrazioei dagokienez **estatuek** era arbitrario eta eskusiboan –gure borondatearen eta subiranotasunaren gaitetik- **ezartzen duten kontrolaren aurka egitea**. Estatuaren jokabideari dagokionez, Europar Batasuneko politika murriztaileen aurrean erakusten duen utzikeria gero eta handiagoa salatzen dugu.

Ildo horretan, **argi eta irmoki errefusatzeko dugu Atzerritartasun Legea (4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainiar Estatuan dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa)**, lege xenofoboa, sexista eta baztertzalea delako. Lege horrek **Bilbon bizi diren milaka pertsona bigarren edo hirugarren mailako herritar bihurtzen ditu**, pertsona ororen oinarritzko eskubideak ukatzen dizkie, lanaren arloan esplotaziora kondenatzen ditu eta jendartetik baztertzen ditu. Horregatik, **Bilboko Udalak lege horrekiko intsumisioa adierazi behar du**, eta Bilboko biztanle guztiak zerbitzu eta prestazio publiko guztiak erabiltzeko eskubide eta aukera berdinak izango dituztela bermatu behar du.

Hala, herritar guztiok udal zerbitzuak erabiltzeko eskubide eta aukera berdinak izan behar ditugula oinarritzat harturik, ez da atzerritarrentzako udal zerbitzu bereizirik sortu behar. Hala ere, kontuan izan behar dugu abiapuntua ez dela berdina kasu guztietan, atzerritartasun legeak pertsona asko administrazio eta lege egoera prekarioan uzten dituelako eta horrek zerbitzu normalizatuak erabiltzeko aukerak murrizten dizkielako. Horregatik, arlo horretan proposamen espezifikoa ere egin behar ditugu.

Proposamenak

169. Bizileku eskubidea eta erroldatzeko eskubidea. Udalen aginpide autonomoa, estatuen eta haien polizia aparatuen injerentziarik gabe. **Udalak erroldatzea erraztu behar du, araubidean ezarritako baldintzak ahal beste malgutuz**.

170. Erroldatzea inoiz ez da erabiliko migratzaileen egoera legezkoa edo legez kanpokoa salatzen. **Legeak horretara behartzen badu ere, Udalak uko egingo dio atzerritarrek erroldan emandako inskripzio datuak** Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari edo beste edozein polizia aparatuari emateari.

171. Bizilekurako eta lanerako baimenak emateari edo berritzeari eta familiak berriz elkartzeko izapideei dagokienez, Udalak azkar, eraginkortasunez eta malgutasunez egingo ditu horretarako beharrezkoak diren txostenak, **atzerritarren erregularizazioa errazteko.**

172. Erakunde eta espazio propioak izateko eskubidea. **Udalaren erabakietan parte hartzeko eskubidea, prozesu ireki, aktibo eta eraginkorren bidez.**

173. **Udalaren eremu guztietan kolektibo eta jendarte eragile horien parte-hartzea** sustatzea (parte-hartze orokorra eta benetakoa, ghattizaziorik eta marjinaziorik gabe), Barruti Kontseilu irekietan, Lankidetzarako Udal Kontseiluan, Berdintasunaren aldeko Bilboko Emakumeen Kontseiluan...

174. **Jendarte laguntzei, prestazioei, etxebizitza eskuratzeari eta beste gai batzuei buruzko informazio zehatza eta argia ematea** (informazioa zabaltzeko bitarteko eta forma egokiak erabiliz, hainbat hizkuntzatan, migratzaileen espazio eta hedabideetan...), beste kolektibo eta pertsona batzuekiko berdintasuna bermatzeko.

175. Migratzaileak **euskalduntzeko neurri bereziak eta lehenetsunezkoak hartzea.** Migratzaileen 0-3 urte bitarteko seme-alabei euskarazko doako hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatzea.

176. Migratzaileei eskaini beharreko **laguntza eta arreta normalizatzea.** Migratzaileekiko harremanetan, zerbitzu publikoetako langileek eta udaltzainek bertoko pertsonekin bezalaxe jokatu behar dute, arlo guztietan (osasuna, hezkuntza, udal haurtzaindegiak, kirola...).

177. Migratzaileek **beren kultura eta ohiturei eusteko nahiz euskal kultura ezagutzeko eskubidea bermatzea.** Harreman egonkorrak eta iraunkorrek sustatzea, trukeen bidez eta kulturen arteko bizikidetzan, pluraltasuna eta aniztasuna errespetatuz.

178. Udalak antolatzen dituen **jardueretan** (kulturaren arlokoetan batez ere) **udalerrian presentzia duten kultura eta tradizio guztiak aintzat hartzea.**

179. **Emakume migratzaileen berdintasuna eta ekitatea sustatzea,** batez ere tratu txarrak jasan dituztenena. Haien dokumentazio egoera edozein dela ere, administrazioaren baliabide eta laguntza guztiak jasotzeko bidea erraztu behar zaie, gainerako emakumeekiko aukera berdintasunez.

180. Bilboko Udalaren informazio gidan berriz ere azaldu behar da tratu txarrak polizia indar zehatz batzuen aurrean salatzeak nolako ondorioak izan ditzakeen dokumenturik gabeko emakumeentzat. **Kasu guztietan, emakume horiei kanporatze espedienterik ez zaiela irekiko bermatuko da.**

181. Jatorrizko herrialde eta herriekiko harremanei dagokienez, **gure udalerrian bizi diren migratzaileen jatorrizko herrialdeekin lehenetsunezko lankidetzan politikak ezartzea,** haiekiko harreman egonkorrak eta senidetzeak sustatuz.

182. Legearen aurreko berdintasun eraginkorra eta benetakoa. **Udaltzaingoaren eta bestelako polizien aldetik migratzaileak kriminalizatzen dituzten jokabideak behin betiko desagertu** behar dira: jendaurreko miaketa iraingarri luzeak kalean bertan eta puntako orduetan; pertsona eta kolektibo horiek elkartzen diren kaleen okupazio poliziala, horren helburua arriskutsuak direla irudikatzea baita; migratzaileen eta haien lokalen aurkako presio itogarria...

183. Ekonomia jardueren gainera, pertsonak errespetatea: **saltzaile ibiltariak kriminalizatzearen aurka gaude**, horren helburu bakarra enpresa handiak eta haien ekonomia ereduak babestea baita. Jendarteraren aurrean kaleko salmenta normalizatzea.

Sozioekonomia

Krisi garaia bizitzen ari gara. Finantza sektoreak eta urtetan neurririk gabe aberastu direnek sortu dute krisia eta, ordea, **herritarrok, langileok pairatzen ari gara ondorioak eta kalteak:** langabezia, prekarizazioa, soldaten jaitsierak, lan-baldintzen okertzea, sektore batzuen hondamendia... Udalak inplikazio aktiboa eduki behar du bai berpizte ekonomikoan bai krisiaren ondorioak leuntzeko, elkartasun-politiken bitartez.

Beharakada ekonomiko eta krisi hori dela medio, behar sozialak, pobrezia eta gizarte bazterketa ia bikoiztu egin da Bilboko hiritarren artean: **gaur egun 26.633 bilbotar langabezian bizi dira;** beste batzuk, areago, iraun egiten dute, miseriazko prestazioak jasotzen dituztelako. Politika sozialak, aldiz, gero eta murrizketa handiagoak izaten ditu. **Horregatik lehenetsuna langabeziaren eta pobreziaaren kontrako borroka izan behar da.**

Egia da Bilbo zerbitzuetako hiri bat dela, zerbitzu-sektoreak nagusitasuna du baina horrek ez du esan nahi gainontzeko sektoreak baztertu behar direnik. Guztiz kontrakoa, **industria garbiak eta nekazaritza eta abeltzaintza bultzatu behar dira, garapen orekatuagoa edukiko badugu.** Horrez gain, gaur egungo ereduak dakarren turismoarekiko mendekotasuna baztertu behar da, Bilbo bertokoentzako ez ezik bisitariarentzako hiri abegitsua izan behar da. Gure kultura, ingurumena, museoak, hizkuntza, gastronomia, kaleak, jendea... **ezagut eta gozatzatzen bisitariak baina bertan bizi garenontzat hiria eraiki behar dugu.**

Eredu sozio-ekonomikoari lotuta, gaur egungo neurri gabeko garapenez eta kontsumismo basatiaz hausnartu behar dugu. **Bestelako eredurantz urratsak ezinbestez eman behar ditugu,** natur baliabideak xahutzen ez dituen eta planetaren biziraupena eta munduko pertsonen berdintasuna eta ongizatea bermatuko duena.

Proposamenak

184. Bilbon dagoen langabetu kopuru handia kontuan harturik – 2011ko urtarrilean 26.633 pertsona INEMen arabera–, udalerrian egiten eta egingo diren herri lanetan Bilboko ahalik eta langabe gehienak lan egiteko enplegu-plana egitea. **Bilboko langabetuak langileen %30, gutxienez, izatea proposatzen dugu.** Arreta berezia sarrerarik ez dutenak eta epe luzeko langabetuak.

185. **Udal lan poltsa bereziak eratzea,** krisiak bereziki gogor kolpatzen dituen sektoreei zuzenduta: emakumeak, gazteak eta langabetuak.

186. **Etxebizitzaren bahitura-arriskuan daudenak lagundu,** etxebizitza ez galtzeko.

187. **Nekazaritzarako dauden lurrak babestu eta hedatu,** eta nekazaritza erakargarri egin, erraztasun eta berariazko laguntzekin.

188. Euskal Herriko **nekazal produktuak merkaturatzeko sarea eratu** eta udal merkatuetan zuzeneko salmenta ahalbidetu.

189. **Industria guneak eta poligonoak sortu**, kutsatzen ez duten sektoreak bultzatuz.
190. **Denda txikiak eta auzoetako merkataritza-jarduera babestu.**
191. **Merkatal gune handi gehiago zabaltzea mugatu.**
192. **Bermatu igande eta jai-egunetako atsedena merkataritza sektorean.** Jai egunetan dendak ez zabaltzeko udal ordenantza abian jarri.
193. Eragin negatiboa izan dezaketen neurriak –ordutegiak, esparru publikoaren erabilpena...- **ostalarien partehartzearekin adostu.**
194. **Turismo eta bisitarientzako eskaintza anitza bultzatu.** Ez ekonomiaren zutabe bakar bezala baina bai gainontzeko jarduerekin bat eginez.
195. **Des-haskundearen inguruko ezagutza eta eztabaida zabaltzeko**, konpromisoak poliki hartu ahal izateko.
196. **Des-haskundearen ildoan praktika batzuk ezarri:**
- ura eta energia kontsumoa jaisteko.
 - hondakinak gutxitzeko.
 - gertuko turismoa bultzatu**, bai Bilbora heltzen dena bai bilbotarrok kanpora goazenean.
 - kotxe pribatuaren erabilpena gutxitzeko neurriak.
 - kontsumo kontziente eta solidarioa sustatu.
 - hirugarren munduko delakoaren produktuak prezio justuetan kontsumitzea sustatu: **merkataritza justuaren sareak hedatu.**
197. **Prekaritatearen kontrako borrokan udala inplikatu**, enprekin egiten dituen kontratuen baldintzen bitartez, adibidez.
198. **Lan-arriskuaren prebentzioan** ere beste instituzioekin bat eginez inplikatu, bereziki, inspektzioaren bitartez.
199. Lan istripuen inguruan herritarrak kontzientziatu eta **biktimekin elkartasuna adierazi eta erreparazio-neurrietan ere parte hartu.**

Politika fiskala eta kontratazioa

Egun dauden desberdintasunei aurre egiteko politika fiskal berria behar da. Bilboko Udalari dagokionez, Udal gobernuak bultzatu behar duen zerga eta tasen politikak **kontuan hartu beharko lituzke gaur egun bilbotarren artean dauden desberdintasun ekonomikoak.**

Helburu horrekin, ondorengo hau proposatzen dugu:

200. Zerga eta tasen **politika progresiboa bultzatuko dugu**, hau da, diru gehien duenak gehiago ordaindu beharko du, eta gutxien duenak, aldiz, gutxiago.
201. Hobari errealak planteatuko ditugu Pobreziaren Mugaren azpitik daudenentzat.

Eskubide sozialak jo mugan dauden honetan, Udalak aitzindaria izan behar du langileria eskubideak bermatzeko eta lan duina bultzatu eta eskaintzeko. Zentzu honetan, ezin dugu ahaztu 12 langile bilbotar hil direla azken bi urte hauetan lan istripuen ondorioz. Ezin ahaztu ere, horietako bat Udaletxea handitzeko herri lanetan hil zela eta beste bat Supersurerko lanetan. Honen aurrean, **ezker abertzaleak konpromiso argia erakutsi nahi du lan istripuak errazten dituen azpi-kontratazioarekin amaitzeko.**

202. Kontratazioen gaineko pleguak aldatuko ditugu **lan istripuak izan dituzten enpresak kontratatzeko eskubidea galtzeko** eta kontratua bertan behera gelditzeko.
203. Udalak **azpi-kontratatuta dituen enpresen langileen lan baldintzak eta soldatak udal langileek dituzten berdinak** izango dira.
204. Udal langileen artean dagoen **behin-behinekotasun tasa altua gutxitu** eta lana egonkortzeko lan eskaintza zabala bultzatuko dugu
205. Udalak **ez** ditu harremanak izango edota **kontratatuko zergak ez ordaintzeko paradisu fiskaletan dirua ezkututzen duten enpresak**.

Politika soziala

Edozein udaleko politika sozialak herritarron eskubide sozialen errespetua izan behar du oinarri, hau da, oinarrizko eskubide sozialak bermatua izatea, hots, lana izateko eskubidea, oinarrizko diru sarrerak izateko eskubidea eta etxebizitza izateko eskubidea.

Eskubide hauek bermatzeko ezinbesteko tresna dira zerbitzu publiko eskuragarriak, unibertsalak, integralak, hurbilak, kalitatezkoak eta doakoak.

Azken urtetako beherakada ekonomikoa eta krisia dela medio, behar sozialak, pobrezia eta gizarte bazterketa ia bikoiztu egin da euskal jendartean. Egoera honetan udalak zerbitzu sozialak pribatizatze bidea hartu du eta gero eta murrizketa handiagoarekin inposatzen zaigu politika soziala.

Gure helburua Bilbo soziala eraikitzea da eta horretarako ezinbestekoak dira aurrekontua sozialak. Aurrekontu partiden arteko banaketan bazterketa sozialaren aurkako borrokan laguntzeko beharrezkoa den inbertsioa eta jendartean modu positiboan eragingo duten partida guztiak lehenetsi behar dira.

Proposamenak

206. **Zerbitzu publikoen pribatizazioa eten** behar da eta pribatizatuta daudenak sektore publikora itzularazi.
207. **Exijentzia gutxiko lau udal zentro berri eraiki**, Otxarkoaga-Txurdinaga, Alde Zaharra, Deustu eta Errekalden. Zerbitzu integralak eskaini behar dituzte eta 24 orduz irekita egon.
208. **Genero indarkeria pairatu duten emakumezkoentzat abegi etxe gehiago ireki** eta, horretarako, udal etxebizitzetako portzentaje bat erreserbatu, edozein emakumeak indarkeria pairatu duen une beran bestelako tramiterik gabe hauetan sarrera zuzenean izateko.
209. **Zerbitzu publiko unibertsalak behar ditugu, beraz, pertsona guztientzako izango direnak, diru-sarrera urriak eduki arren.**
210. **Auzoetara hurbildu behar dira zerbitzu publikoak.** Auzo guztietan hurrengo zerbitzuak jartzea da helburua: haur eskola, modulu psiko-soziala, eguneko zentroa, udal administrazio bulegoa, liburutegia, kultur etxea, kirol ekipamenduak, osasun-etxea, gazte gunea, Bilbogarbi, hezkuntza eta gizarte arloko laguntza programa.
211. **Zerbitzuak publikoak pertsonentzako eskuragarriak izan behar dira**, burokrazia amaigaberik eta mila leihatilarik gabe. Leihatila bakarren sistemara hurbildu behar gara eta tramiteak erraztu.
212. **Gutxieneko diru-sarrerak ez duten pertsona guztiek lanbide-arteke gutxieneko soldataren (LGS) pareko soldata soziala jaso behar dute**

213. **Udalak lanpostuak sortuko ditu zerbitzu publikoen eremuan**, onura bikoitza izanik: langabeziaren kontrako borroka eta zerbitzu publikoen hedapena eta hobekuntza.

214. **Udalak zerbitzu publikoetako langileen egoera eta lan baldintza duinak** bermatuko ditu.

Kultura

Bilbo kosmopolita eta zerbitzu hiri bezala aurkeztu nahi du mundu mailan, hau da, mundu mailako lehian Bilbo hiri salgarri moduan aurkeztu nahi du.

Bilbo da euskaldun kopururik handiena duen Euskal Herriko udalerrria, baita euskararekiko erdaldun elebakarren kopururik handiena duena ere. Hizkuntza bien arteko izatezko pisua (hiztunen portzentajea alegia) erabat desorekatuta dago.

Gaur egun, mundu mailako kultura baten sorrera gertatu da, teknologia berriek eta mundu mailako komunitate bakarraren kontzeptuak eraginda, mundu guztian denbora eta espazio berean eduki berberak jasotzen ditugu, uniformizazio kulturala ematen ari da.

Kultura berritzailea euskaraz erein behar dugu, ekonomiaren, jendartearen eta kulturaren arloak bateratzen dituen garapen iraunkorraren benetako ardatza eraikitzeko. Garapen iraunkorra, jendarte kohesioa eta kulturaren demokratizazioa uztartuz

Kultur kudeaketa orekatua burutu beharko du Udalak. Bai espazioan zein ekimen bakoitzari ematen zaion indar eta kategoriari dagokionean.

Bilboko udalak sustatuko duen kultur eredua, honako ardatzetan oinarrituko da:

- Euskalduna eta euskaraduna.
- Partehartzailea
- Parekidetasuna sustatuko duena
- Anitza
- Sortzailea eta era berean eraldatzailea-berritzailea.

Parte hartzailea

215. **Kultura bilgunea** sortzea proposatzen dugu: kultur hartzaileak, kultur sortzaileak eta eragileak biltzeko markoa, beraiek izan daitezen kultura politika eztabaidatu, adostu eta gauzatzeko neurriak udalari proposatuko dizkietenak.

Izaera herritarra sustatuko duena

216. **Jai herritarraren eredua** sustatuko du udalak. Auzoetan Jai Batzordeekin elkarlanean arituz, zein Bilbo mailan Konpartsen Koordinakundearen eskutik.

a. Auzoetako jaietarako biztanleko 2 euroko aurrekontua bideratzea

217. Kultura kalean proiektatzea bultzatuko duena, egungo oztopo eta trabak alde batera utziz.

Sormena bultzatuko duena

218. Sortzaile berriak sortuko direla ziurtatuko duen kultura-politika bultzatu behar dugu eta horretarako kultura eta kirola bilguneak garrantzia berezia dauka.

219. Eszena-arteen **sormenerako eta ekoizpenerako** gunea eratzea. Honetarako **ARTIACH enpresako egoitza** zen eraikina birgaitzea proposatzen dugu. Bertoko sortzaileek gidatutako lekua izan behar du.
220. BILBOARTE herritarrei gerturatu.
221. **Gazte-guneak eratu auzo guztietan**: espazio aske bat non kultur sormena posiblea den (musika, antzerkia, bertsolaritza, literatura, dantza, ikastaroak, sortze prozesuak,...) gazteei begira.
222. Euskarazko sorkuntza sustatzeko plan bereziak burutzea.

Anitza

Kultur aniztasunaren ibilbide honetan, etorkinen kulturek ere leku duin bat behar dute udalaren programazioan eta Bilbo osoan eta ez bakarrik zonalde zehatz batean. Migrazioa Bilbo osoan hedatuta dagoen fenomeno da eta kultura ezberdinak ezagutzuz eta zabalduz bilbotar guztiak aberasteaz gain, ghetizazioa ekidingo genuke.

Helburu horrekin, Udalaren programazioan zeharkako ardatza izango da hau.

223. Etorkinen kulturak ezagutzera emateko ekimenak antolatu edo sustatu: integrazioa sustatzeko bitarteko gisa. Beren kultur errealitateak ezagutzera emateko ekimenei herritar guztien arteko harremanak trinkotzea izango dute helburu.

Parekidetasuna sustatuko duena

224. Emakumeen parte hartzea sustatu eta emakumeak kultur ondarean eta transmisioan izan duen papera goraiatzeko neurriak hartuko ditu.

Kultur transmisioa eta Komunikabideak

225. Euskarazko kulturaren ezagutza eta transmisioa sustatzeko programak indartzea. Bertakoentzat zein atzerritarrentzat. Ezagutzen ez dena ezin da maitatu eta hortaz ezin da transmititu.
226. Hiriko komunikabideekiko lankidetzak sustatu, euskarazko kulturaren hedapen, prestigiatze eta transmisiorako.
227. Bilbao Udal egunkaria eraberritu eta bertan euskararen presentzia %50 izatea bermatu.
228. Euskarazko kulturaren transmisioan eta hedapenean orain artean baino baliabide humano eta ekonomiko gehiago jarri behar dira.

Euskal kulturaren hiriburua

Bilbo euskal kulturaren hiriburua bihurtu behar dugu. Orain arte atzerritarra da nagusi Bilbon. Beraz, kanpotik datorkigun uholde kulturala galdu barik hurrengo urteetan Euskal Kulturak merezi duen espazio duina eskuratu behar dugu.

Teknologia berriak, euskal kulturaren sustapenerako tresna

-

Ekipamenduak – azpiegiturak

229. Artiach zeneko eraikinean, **eszena-arteen sorkuntzarako eta ekoizpenerako gunea sustatuko dugu**, horretarako proiektu integratzaile bat burutuz, auzo horretako errealitatean. Bertan sartuko lirateke ere:
- Udal antzerki eskola
 - Udal dantza eskola

230. Auzo guztietan **kultur etxeak** irekitzea. Hauen artean kultur sare bat antolatu, eta horrela formatu txikiko ikuskarrien programazio bat antolatzeko auzoetan, dantza, antzerkia, musika formatu ezberdinetan,...

231. Urte osoan zehar, **euskal kulturaren aterkipean sortzen diren ekoizpen guztiak programa daitezkeen espazio bat**. Arriaga antzokiak betetzen ez duena, honetarako **Euskalduna jauregiko A1** antzokia proposatzen dugu, nahiz eta Aldundiarena izan Udala eta bien arteko akordio baten bitartez honetarako leku egokia izan daiteke.

232. Udalak, auzoek eta tokiko eragileek erabili ahal izateko oinarritzko materiala eskuratzeko aukera izatea (tarimak, soinu ekipo, aulki, mahai, eta abar).

Arlo ezberdinak

Zinema. Euskal Zinemari eta euskaraz zinema ikusteko aukera zabaldu behar da urte osoan zehar.

Bertsolaritza. Bertsozale elkartearekin lan komunean plan estrategiko bat bideratu behar da Bilbo mailako bertsolaritza suspertzeko. Santutxuko eskola egonkortzetik hasi eta beste auzo batzuetara zabaltzeko helburuarekin.

Bilboko museo goi mailako sarea, hiritarroi hurbildu behar zaigu.

Kirola

Ezker abertzaleak datozen lau urteetan Udalean bultzatuko duen politikak ondorengo oinarriak izango ditu:

- **ZERBITZU PUBLIKOA**, kirola zerbitzu publiko gisa ulertuta, kalitatezkoa, eskuragarria eta integrala, herritar guztien esku.
- **PARTE-HARTZEA**, herritarren zein kirol taldeen parte-hartzea
- **BERDINTASUNA**: kirolean ere gizon-emakumeen parte hartzea ez da baldintza berdinetan ematen. Garrantzitsutzat jotzen dugu **emakumezkoen inplikazio zuzena** suspertzea kirolaren atal guztietan, praktika nahiz zuzendaritza mailako esparruetan.
- **OSASUNA ETA ZERBITZUAK**: kirola osasunaren atal garrantzitsua da gizakiaren bizimoduan: osasun orokorrean, prebentzioan, ongizatean, alderdi psikologikoan, e.a. Eliteko kirola baztertu gabe, **kirola gizakien osasun eragile nagusietako bat bezala** sustatuko dugu.
- **BESTE GIZA BALOREAK** sustatuko dugu. Kirolaren bidez berdintasunean oinarritutako giza harremanak suspertzeko asmoa dugu; **gizakien arteko elkartasuna bultzatuz**; etorkinen, gutxiengo etnikoen, elbarrituen nahiz sektore baztertuen integrazioan; Balore hauetan oinarritutako hezkuntza sustatuko dugu kirol jardueran. Udal monitoreak aipatutako baloreak izan ditzaten bermatzea dugu helburu.
- **EUSKARAREN NORMALIZAZIOA**: euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeak garrantzia handia du. Ekitaldi publikoetan zein kirol arlo guztietan edozein ikastaro edo zerbitzu **euskaraz emateko eta jasotzeko eskubidea** bermatuko dugu.
- **PROFESIONALITASUNA ETA LAN BALDINTZAK duinak**
- **NAZIO EGITURAKETA**: Euskal Herri osoko kirol eragileak dinamika komunean inplikaturako dituzten **nazio proiektuak sustatuko** ditugu.
- **NAZIO IDENTITATEA**: jatorriz edo tradizioz Euskal Herriaren identitatearen adierazpide bihurtu diren **euskal kirolen sustapenari lehentasuna** emango diogu.

- **SELEKZIOEN OFIZIALITASUNA** bultzatu.

Proposamenak

233. Bilbao Kirolak-en **zuzeneko kudeaketa**. Zerbitzuaren pribatizazioarekin amaitzea.
234. **Tarifak** murriztu eta **errentaren arabera finkatzea**.
235. **Auzo bakoitzeko kiroldegi bana** izateko plan bat abian jartzea.
236. Auzoetako **frontoiak estaltzea**.
237. Hiru futbol zelai gehiago eraikitzea egun dagoen eskaerari erantzuteko.
238. **Auzoetan** dauden kirol txapelketak babestu eta sustatzea.
239. **Adin guztietarako kirol eskaintza bermatzea**: herritar guztiak kirola egiteko aukera egokia izan dezaten Udal plana egitea.
240. **Harrobiko kirolari** babesa ematea. Federatuta dauden Udal taldeek udal kirol-instalazioak erabiltzeagatik ordaintzen dituzten tarifak bertan behera gelditzea.
241. Gizon eta emakumeen kirol jarduera baldintza berdinetan eman dadin kirol elkarteek jarrera aktiboa izan dezaten sentsibilizazio kanpainak antolatuko ditu Bilboko udalak.
242. Migranteak hiri zein auzoetako kirol jardueran inplika daitezen sustatzeko plana egingo du Bilboko udalak.
243. Udalak antolatutako edota lagundutako **kirol ekimenetan euskararen presentzia bermatzea**.
244. Bilboko kiroldegi, kirol zerbitzu eta kirol arlo guztietan edozein ikastaro edo zerbitzu euskaraz emateko eta jasotzeko eskubidea bermatzea.
245. **Euskal kirolen udal eskola** martxan jartzea.
246. Euskal kirolak eta jokoak berreskuratu eta sustatzeko plan estrategikoa abian jartzea.
247. Udalak, diru laguntzak emanez eta azpiegituraz eskainiz, **Euskal Herriko txapelketak Bilbon izatea** bultzatuko du.
248. Euskal selekzioen aldeko ekimenak antolatu eta babestea.

Aisialdia

Bilboko Udalak kontsumora bideratutako eskaintza bultzatzen du, parte hartzea baztertuz eta jendartaren nahiak kontutan izan barik. Aisialdiaren kontsumorako egiten den eskaintza ez da nahikoa eta ez da auzo guztietara heltzen, auzo-etxe eta kiroldegietatik egiten den eskaintza ez da nahikoa, eta ikastaroetan izena emandakoen itxaron zerrendak amaigabeak dira.

Kulturaren kontsumoa bezala, programa erraldoiak eta ikusgarrienak hiriaren erdigunean kokatzen ditu udalak. Auzoetan aisialdia modu parte hartzaile, hezitzaile eta eraikitzailean bizitzeko bideratutako bitartekoak oso eskasak dira, horren lekuko da udalaren aurrekontua. Horrekin batera, espazio publikoaren erabilera arautzen duen ordenantzak, erabat murrizten du, aisialdia eta kalearen erabilpena modu parte hartzailean.

Gazteriari begirako bitartekoak:

Aisialdiaren kontsumoa da kapitalismo globalizatuaren hedapenerako negozioerik handienetakoa eta gazterian merkaturik onena aurkitu du. **Gaztea = merkatua** da sistemaren eta udal honen logika.

Sistemak gazteen artean sortzen dituen frustrazio, tentsio eta depresioentzat “valvula de escape” batean bilakatu da aisialdia.

Udaletik eskaintzen diren aisialdia garatzeko bitartekoak, **ez dituzte gaztetxoek beharrak asetzen**. Horren adibide ditugu “gazte-leku” deitutako guneak, zeinak gestio desegoki baten ondorioz, ez dituzte Bilboko gazteek dituzten beharrak asetzen.

Aisialdia modu parte hartzaile, hezitzaile, hezkidetzaille eta eraikitzailean garatzeko honako ardatzak izango ditugu kontutan:

- Aisialdia **euskaraz garatu ahal izatea**. Gaztetxoei zuzendutako ekimenak euskaraz izatea bermatuko dugu.
- **Euskarazko kultura suspertuko** dugu, lehentasun gradu bat emanaz.
- **Genero ikuspegia** kontutan hartuko dugu, emakumeei bereziki zuzendutako eskaintza zabalduz, neska gazteen parte hartzea bermatzeko dauden oztopoak gaindituz.
- **Hezkidetzarako programak** sustatuko ditugu. Generoen araberako rolerak eta estereotipoek gaztetxoengan eta etorkizuneko jendartean duten esanahia aldatu asmoz.
- Aisialdia kulturen arteko ezagutza errazteko esparru egokia izanik, **kulturartekotasuna bultzatzeko** jarduerak bultzatuko ditugu.

Proposamenak:

249. Bilbon, aisialdiaren garapenerako, **kalearen erabilpena arautzen duen ordenantza**, oztopo bat dela deritzogu, oinarritzko zenbait eskubideren aurka doan araudia izateagatik. Berau **bertan behera** ustea proposatzen dugu, Bilboko zenbait eragile eta mugimenduk aldarrikatu dutenari jarraiki.

250. **Aisialdia, hezkuntza ez-formalerako esparrua** izanik, eta gaztetxoek artean baloreak, pertsonalitatea eta jarrerak definitzeko eremua izanik. Eremu honek duen garrantzia estrategikoaz landuko dugu eta beharrezkoak diren planifikazio eta jarduerak garatuko ditugu.

251. **Aisialdi programen ebaluazio iraunkorra** egitea sustatuko dugu, hasierako helburuak betetzen diren ziurtatzeko eta horrela izan ezean neurri zuzentzaileak hartu beharko dira.

252. **Auzoetan** egun existitzen diren aisialdi taldeak lagunduko ditugu, bai ekonomikoki zein azpiegiturak eskainiz.

253. **Aisialdi ekimenak auzo guztietan bermatu** eta jarduera guztien informazioa behar bezala publikizatzea bermatuko dugu, jendeak parte hartu dezan.

254. Udalak arlo honetan diharduten enprekin zein taldeekin lan egitea onartzea hauen **lan estila eta askatasuna errespetatzea** bultzatuko dugu, hala nola esparru honetan ari diren langileen lan baldintzak duinak izatea bermatzea.

255. Aisialdia deritzonaren barnean eta honen erabilpenaren inguruan gizarte sektore ezberdinen artean gertatu daitezkeen gatazken aurrean, **elkarrizketa eta akordioak lortzeko tresnak sustatuko ditugu**.

Gazte programa

Gazteek bizi duten errealitatea bereziak zeharkako proposamenak exijitzen ditu, erantzun orokorra osatzeko.

1.- Gazteriak etxebizitza izateko eskubidea

- Etxe hutsen kudeaketa. Negozioan oinarritutako etxebizitzaren eraikuntzari aurre egiteko, gazteriaren beharren arabera, etxe hutsen kudeaketa egokia planteatzea. Etxe hutsen poltsa sortu eta alokairu merkean ateraz besteak beste Administrazioak etxe hutsen kudeaketa garatzea, gazteon beharren arabera.
- Alokairu publikoa eta merkea. Gazteon behar eta egoeraren arabera planteamendua garatu. Etxebizitza parke publikoaren bultzatzea.
- Etxebizitza publikoko parkearen portzentaje bat gazteoi zuzenduta egon behar da. Udal etxebizitzaren eskuratzeko eskakizunen moldaketa gazte guztiok hauek eskuratu ahal izateko. Diru sarrera minimoen exijentzia kendu.
- Okupazioa, egun etxebizitza eskuratzeko ezintasunari aurre egiteko borroka tresna eta gazteon iniziatiba etxe hutsen okupazioa izanik, aukera hau bultzatu eta babestu egin behar da eta honekin batera, okupazioaren despenalizazioa ere aldarrikatu.

2.- Gazteriak lan duinerako eskubidea

- Gazteen langabeziari aurre egiteko plangintza zehatzak.
- Lan Azpikontratazioa eta behin behinekotasunarekin bukatzeko neurriak. Instituzioetan Lan eskaintza publikoa egin behar dira.
- Lan duina bermatuko duen lan poltsa publikoa. Gazteon lan baldintza duinak errespetatzen direla ziurtatzea.
- Udal lanetan eta udalari begira egiten diren lanetan bertako gazteei lehentasuna ematea.
- Privatizazioak dakartzen ondorioen aurrean, zerbitzu publikoaren aldarrikapena.
- Egungo lan merkatuaren eta zehazki lan baldintzen salaketa. Deslokalizazioa, prekarietatea, eskubide murrizketa, behin behinekotasuna, privatizazioa,...
- Prekarietatearen ondorioz lan munduan ematen diren heriotza eta istripuen salaketa eta horrekin amaitzeko neurriak.
- Ikasleen prestakuntza osagarria bideratutako praktika duinen aldarrikapena.
- Emakume gazteak prekarietatea, esplotazioa eta pobreziaren aurpegi gordinena sufritzen duen sektorea izanik, egoera espezifikoaren salaketa eta neurri zehatzak aldarrikatu eta garatu.

3.- Gazteriak bizitzeko oinarrizkoak dituen diru sarrerak eskuratzeko eskubidea.

Jendarte Babeserako eskubidea

- Aberastasunaren banaketa erreala bermatze bidean eta bizi kalitate duin bat garatzeko, soldata sozial duina eta bere aplikazioa 16 urtetik aurrera izatea aldarrikatu eta bultzatu.
- Ikas baldintza duinak aldarrikatu eta bermatzeko ekinbidea garatu.
- Ikasleentzako diru-laguntzak ikasketak garatzen dauden bitartean bizitza duin bat garatu ahal izateko.
- Gazteen ahalmen ekonomikoaren arabera zerbitzu publikoak.
- Garraio publikoaren merkeago izatea gazteontzat. Gazteontzat eskuragarri izango diren tarifak ezarriaz.

4.- Gazteek bizi eredu, balore eta kultura askatzaileak sortu eta garatzeko eskubidea

- Autogestioaren bidez, aisialdia eta astialdia garatzeko, zein astialdirako jarduerak baldintza egokietan kudeatzeko eta eskaintzeko beharrezkoak diren baliabideak zein espazioak izateko eskubidearen defentsa, bultzatze eta bermatzerako ekinbidea gauzatu behar dugu.
- Gazteek kudeatutako espazioak aldarrikatzea eta gaztetxeen proiektuak bultzatu. Gure auzoetan gazteek kudeatutako lokalak baditugu, arlo honetan betetzen duten paper garrantzitsuaz jabeturik, hauen babestu eta indartzearen alde ere lan egingo dugu.
- Egungo jendarte eredu eta gazteoi inposatzen diguten bizi ereduaren salaketa (aisialdia eredu arrotz eta inposatua; drogen kontsumo basatia; kontsumismoa; ...) eta aurkako borroka.
- Gazteok balore, kultura eta bizi eredu askatzaileak garatze asmoz sortu eta garatzen ditugun alternatiba eta dinamikak bultzatzea.
- Gazteon sorkuntzari bitartekoak emateko udal plan bat: arte eta kultur sorkuntzari begira espazio fisikoak eta baliabide materialak jartzea. Honetaz gainera, gazte sorkuntza sustatzeari begira, espazio publikoetan erakustaldi, emanaldi eta abar antolatzea. Espazio hauek auzo guztietan ere bermatzea. (Honentzako muga izan daitekeen udal ordenantza bertan behera uztea)
- Udalak antolaturiko ekimen desberdinetan gazteak kontuan hartuak izatea.

5.- Gazteriaren hitza eta erabakiaren defentsa

- Gazteon autogestiorako eskubidearen onarpena.
- Gaztetxeekiko udalak duen jarrera errepresiboa gelditzea. Gazteon autogestiorako eskubidearen errespetua eta onarpena.
- Kartelen eta bestela bitarteko komunikatiboen gainean egindako udal ordenantza desagerraraztea. Honen helburua guztiz errepresiboa da, gazteok, gure hitza eta espresio bideak kaletik kentzea hain zuzen.
- Udalaren jardueran gazteon parte-hartzea bermatzeko bitartekoak jartzeari begira, parte hartu ahalko duen baldintza bakarra adina izango delarik eta kontsulta organo izatetik haratago, erabaki gaitasuna izango lukeena.
- Gaur egun egon daitezkeen gatazken aurrean, gazteekiko eta gazteontzat eztabaida eta hausnarketa guneak irekitzea eta kontsentsua bilatzea hauei aterabidea ematerako orduan. Horretarako, unean uneko gune eta planteamendu espezifikoaren garapena gazteon hitza eta erabakia kontuan izanda.

6.- Gazteon hizkuntza eskubideen defentsa.

- Gazteon hizkuntza eskubideen defentsak, euskararen ezagutza eta erabilera ziurtatzeko ekinbidea izan behar du ardatz.
- Egungo hizkuntz politikaren ondorioz, gazteon hizkuntz eskubideen etengabeko urraketaren salaketa.
- Gazte belaunaldiak euskaldunduak izateko eskubidearen defentsa.
- Gazteria euskaraz bizitzeko politika integral eta neurri zehatzen aldarrikapen eta bultzatzea (bitarteko komunikatiboetan, kultur eskaintzari dagokionez, ...). Zentzu honetan, gazte espazio eta guneen euskalduntzerako neurri hartzea.
- Euskaraz, eta eduki eta balore sistema propio baten arabera ikasteko eta hezteko eskubidearen bermea.